

# Arrasate

P R E S S

1998ko  
Martxoak 13  
399. zenb.



## Arrasate dantzan

Saltsa, fandangoa, tangoa, arin-arina, pasodoblea, merengea, jazz-a...

IKUSPEGIA: AMAIA JAUREGI-ARRABURU • KIROLAK: JOSU ESTEVEZ  
IRITZIA: ATARRATZ ETXEBARRIA • KULTURA: JOSE INAZIO ANSORENA "MIRRI"





# Arrasateko OSASUN GIDA

## ODONTOLOGIA

- ADUR ODONTOLOGIA INSTITUTU MEDIKUA Iturriotz, 35.....☎79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17,1 Ezk.....☎79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea .....☎79 71 90
- GIPIZKOAKO ODONTOLOGIA ESPEZIALITATEEN ZENTRUA Iturriotz, 7 Bis .....☎79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7, 1<sup>º</sup> .....☎79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsaldez) Alfonso X. Jakintsua, 5.....☎79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3 1.-B.....☎77 12 63

## DERMATOLOGIA

- ROBERTO ZABALA. (Mendia Jauregia) Erdiko Kale, 22-1 .....☎79 72 16
- CRISTINA GARCIAIDIA. (Udalaitz Mediku-Zentroa) Ferrerías, 56 behea.....☎79 44 22

## GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1.....☎77 14 72

## ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 .....☎77 00 40
- JUAN RAMON ARANDO. Erdiko kale, 22 -1 .....☎79 72 16

## FISIOTERAPIA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA ERREHABILITAZIO ZENTRUA Olarte 43 Bis .....☎77 03 96

## LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kale, 37 .....☎79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 .....☎79 48 77

## MASAJEAK

- EUGENIO RAMOS Bizkaia Etorbidea, 12- 2 Esk.....☎77 06 22
- JOSE LUIS ABUIN San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) .....☎77 01 33

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea .....☎79 44 22

## OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6 .....☎79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 .....☎79 29 95

## ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPIEDIA Kontzeziño, 2 .....☎79 89 34

## OSTEOPATIA

- NEREA BENGEOA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 .....(Mobila) ☎989 58 66 89

## OTORRINOLARINGOLOGIA

- ZULUETA ETA NAVARRO Dreak (Arratsaldetan). Zerkaosteta, 17 behea .....☎79 20 18

## PODOLOGIA

- AZKARATE MORRAS Uribarri etorbidea, 5 behea .....☎79 53 63

## PSIKOLOGIA

- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 .....☎79 88 16
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 .....☎79 48 77
- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko Kale, 37 .....☎79 79 46

## UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaitz) Ferrerías, 56.....☎79 44 22



# Medikamentazo delakoa

**B**este batzuetan bezala, badirudi PPko gobernua oraingoan ere bakarrik geratu dela, kasu honetan Jose Manuel Romay buru duen Sanitate eta Kontsumorako Ministerioaren "medikamentazio" dela eta. Hobeto esateko, hasieratik egon ei da bakarrik, ez baitu inorekin kontsultatu, ez inoren irizpiderik jaso, ez arloko teknikariengandik ez eta gizartean hizketakide izan zitezkeen hainbat elkarterengandik (nahiz eta hori ere gauza berririk izan ez), Gizarte Segurantzaren finantzaziotik 869 botika kentzerakoan. Dirudienez, harremana izan duen bakarrarekin saileko industriekin izan da, eta hauen oniritzi osoa



Amaia Jauregi-Arraburu

**"Pribatizaziorantz doan beste urrats bat besterik ez da"**

ere ez du lortu, hainbatentzat neurri kaltegarria izan baita. Gobernuak dioenez, neurri honen helburua da botiken finantziazioan gastatzen duen diru kopurua murriztea, hau da, dirua aurreratzea. Baina 1993an, PSOEko gobernua aplikatu zuen lehen "medikamentazio" ak garbi utzi zuenez, lehen urtean bai aurreztu zen, baina hurrengo urteetan botikak garestitu egin ziren eta ez zen horrelako aurrezpenik ikusi. Ez al da aurrezteko izan beharrean aurrekontuen mentsa edo defizita estaltzeko modu bat? Eta gainera, erosahalten gutxien dutenen lepotik.

Kaltetuak aterako direnak, eta ez dago azterketa sakonik egin beharrik, erosahalten

txikien daukatenak izango dira, euren botikak lortzeko osasun publikoaren beharra dutenak eta botika gehien behar dituztenak, hau da, besteak beste, jubilatutak.

Honi gaineratu behar diogu "errezeta zuria" delakoa, hau da, medikuak errezetatu ahal izango ditu finantziazio publikoa ez duten botikak, Romay-k berak diogen bezala, "eragin-kortasuna frogatu baitute". Eta eraginkortasuna frogatua badute, zergatik ez ditu Gizarte Segurantzak finantzatzen? Eta eraginlortasunik ez badute, zergatik ez ditu merkatutik desagertarazten?

Azkenean, pribatizaziorantz doan beste urrats bat besterik ez da. Gizarte Segurantzak ematen dituen zerbitzuak gero eta urriagoak direnez, gero eta gehiago ordaindu beharko ditugu geure poltsikotik, botikak ezezik, zerbitzuak ere.

**ARKO**  
ARRASATE  
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS  
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otxalora kalea, 31  
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40  
E-mail: arrasatepress@readysoft.es

Laguntzailea: Arrasateko Udala. Zuzendaria: Joxe Aranzabal. Kazetariak: Iñaro Zubillaga, Marian Porcel, Naiara Gorroño. Publizitatea: Kaitlin Allende, Nerea Zallo (Tel.: 77 06 15). Administrazioa: Ikeme Altube (Tel.: 79 02 26). Diseinua: Goio Arana. Kolaboratzaileak: Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Iñaro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobengoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, ASA taldea, Eneko Allende, Bessalde M. E., Karmelo Urbarren, Bixente Pagoga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Aguiria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Lelona, Karmele Perez, Kopl, Jon Ozeta, Jabi Luango, Maite Barreña. Banaketa arduraduna: Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28). ©ARRASATE PRESS. Tirada: 6.300. Logo-Gordailua: 1124/88. ISSN: 0214-4654. Frankeo kontzerfatuia. Inprimategia: Gerfu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSEk ez du bere gain hartzen aldidizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Ignacio Perez.

## 399. zenbaki honetan

1998ko martxoaren 13an

Asteko agenda.....	4/5	Orain eta hemen ..	10/13	Kulturaren txokoa ..	28/29
Irakurlea idazle .....	6	Txutxumutxuak.....	14/15	Azoka plaza .....	30/31
Inkesta.....	7	Asteko gaia .....	17/19	Denborapasak .....	32
Euren ikuspuntutik .....	8	Kirolak jokoan .....	20/23	Ikusi eta entzun .....	33
Astearen erreposoa .....	9	30 galderatan .....	26	Fotozaharra .....	34

*Ikuspegia*  
**Amaia Jauregi-Arraburu..... 3**

*Euren ikuspegitik*  
**Atarratz Etxeberria .....** 8

*Kirolaren txokoa*  
**Josu Estevez .....** 22

*Aurrez aurre*  
**Kepa Zelaia .....** 24/25

*Kulturaren txokoa*  
**Jose Inazio Ansorena .....** 29

*Asteko gaia*  
**Arrasate dantzan.....** 17/19

Saltsa, vals-a, pasodoblea, tangoa, arin-arina, jazz-a, fandangoa, merenguea... mota guztietako dantzak ikas daitezke herrian. Gaur egun 200 bat lagunek dantza egiten dute Arrasaten.



# 13

## ostirala

### ■ ZINEA

*Un lio padre.* Alai zinemán, arratsaldeko 19:00etan eta 21:30etan.

### ■ GAZTE ASTEKO EKITALDIAK

Bideo Klip eta film laburren emanaldia udaletxeo arkupetan, arratsaldeko 20:00etan. *Ume Gaiptoak* eta inguruko beste talde batzuen emanaldia Gaztetxean, gaueko 22:30etan, Porturen omezez.

### ■ ELKARTASUN AFARIA

San Viator Txikin elkartasan afaria egingo da, arratsaldeko 20:30etan. Elbi-gela proiektuaren alde. Serro San Viatorrek antolatatu du.

### ■ ARRASATE MUSIKAL DURANGORA

Arrasate Musikalen Aschero sistemarekin ikasten ari diren ikasleek emanaldia izango dute Durangoko Musika Udal kontserbatorioan, arratsaldeko 19:00etan.

### ■ OÑATIKO GAZTELEKUAN EMANALDIA

*Idi Bihotz* eta *Utikan* taldeen emanaldia Oñatiko Gaztelekuan, gaueko 22:30etan. Sarrera 400 pezeta.

# 14

## larunbata

### ■ ZINEA

*Mejor... imposible.* Alai zinemán, arratsaldeko 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

### ■ GAZTE ASTEKO EKITALDIAK

Kale antzerkia, arratsaldeko 19:00etan AEDko antzerki taldearen eskutik. Musika emanaldiak herriko tabernetan, arratsaldeko 19:30etan.

### ■ ITOIZ-EN ALDEKO KALE AGERRALDIA

Iruñean Itoiz solidarioen alde egingo den kale agerraldira joateko autobusa, garelkutik irtengo da, arratsaldeko 17:00etan. Kale agerraldia, arratsaldeko 19:30etan izango da.

### ■ KALE AGERRALDIA NARKOTRAFIOAREN ETA EPAILEEN GELDOTASUNAREN AURKA

Narkotrafikoaren eta epaileen geldotasunaren aurkako kale agerraldia izango da Donostian. Askagintzak autobusa antolatatu du. Irteera erdialdeko garelkutik izango da, arratsaldeko 15:30etan.

# 15

## igandea

### ■ ZINEA

*Mejor... imposible.* Alai zinemán, arratsaldeko 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

### ■ TRIALSIN TXAPELKETA UDALAN

Gipuzkoako txapelketa-rako baliagarria den proba jokatu da Udalan, goizeko 10:30etan.

### ■ ABELTZAINEN ELKARTEAREN BILTZAR OROKORRA

Deba Garaiko Abelazle-en Elkarreak biltzar orokorra izango du Bergarako UNED-en, eguerdiko 12:00etan.

### ■ GAZTE ASTEKO EKITALDIAK

Kalejira erraldoia egingo da Seberon hasita, eguerdiko 13:00etan. Bertso bazkaria Seberon, arratsaldeko 14:30etan.

### ■ PAILAZOAK AMAIAN

*Txirri, Mirri eta Txiribiton* pailazoaren emanaldia Amaia antzokian izango da, arratsaldeko 16:00etan eta 18:00etan. Sarrera: 600 pezeta. Urruñako Ikastolaren alde.

# 16

## astelehena

### ■ ZINEA

*Mejor... imposible.* Alai zinemán, arratsaldeko 19:00etan eta 21:30etan.

### ■ ODOL EMATEA

Arrasateko Anbulatorioan, arratsaldeko 16:30etatik 20:00etara.

### ■ HISTORIARI BURUZKO HITZALDIA ESKOLA POLITEKNIKOAN

Gaia: Foruen Galera eta Iraultza Industrialia. Hizlaria: Gotzon Iparragirre. Eskola Politeknikoko areto nagusian, arratsaldeko 19:00etan

*Sili Sili*  
Martxa eta estilo handiko arropa  
Iturriotz, 9 • ARRASATE  
Tel.: 79 81 82

**UGARAN**  
jatetxea  
Garagartza auzoa  
Tfnoa: 79 76 58  
ARRASATE

**Memesa**  
79 42 22

● **Txitxinpe** ●  
Berezitasunak:  
Kafea, ardoa, urdaitegia,  
fruitu lehorrak  
Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE • Tel.: 79 67 76



# 17

## asteartea

### ■ ZINEA

*Mejor... imposible.* Alai zineman, arratsaldeko 19:00etan eta 21:30etan.

### ■ ODOL EMATEA

Arrasateko Anbulatorioan, arratsaldeko 16:30etatik 20:00etara.

### ■ AUTOEI BURUZKO HITZALDIA GAZTETXEAN

Gaia: Automobilak. Hizlaria: Justo de la Cueva. Gaztetxean, arratsaldeko 19:00etan.

### ■ ESKULANEN ERAKUSKETA MONTERRONEN

Martxoaren 23tik 31era, Eskuz Taldearen eskulanen erakusketa egingo da Monterronen. Orduetgia: 18:00etatik 20:00ak arte. Larunbat eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00ak arte.

### ■ UDALAREN OHARRA

Trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko zergaren errolda onartu da Arrasateko Udalan. Hamabost eguneko epearen barruan jendearean izango da, interesatuek aztertu eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak udal bulegoetan aurkeztu ahal ditzaten. Ordainagiriak udaletxean edo edozein banketxean ordain daitezke, maiatzaren 8a baino lehen. Aipatutako epea pasatu ondoren, ordainagiriak eguneko hogeiko gainarguz kobratuko dira.

### ■ BIDAIA JUBILATUENTZAT

Gizartekintzak Lisboa-ko Expo 1998ra joateko bidaia antolatu du hirugarren adinekoentzat. Bost eguneko txangoak 52.200 pezeta balio du. Izena emateko egiteko epea zabalik dago. Horretarako, udaleko Ongizate sailera jo.

### ■ ANTZERKI IKASTAROA

AEDk antzerki eskola jarriko du abian martxoaren 26an. San Joanak arte iraungo du. Saioak ostegunetan izango dira, arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara. Ikastaroko zuzendaria: Mikel Osoro da. Hamasei urtetik gorako edonork har dezake parte. Prezioa 7.000 pezeta, AEDko bazkideentzat 6.000 pta.; langabe eta ikasleentzat 5.000 pezeta. Izen ematea martxoaren 20a baino lehen egin behar da, AEDren egoitzan. (77 12 28).

### ■ AUTOBIDEAREN KONTRAKO PENTSAURREA EIBARREN

Martxoaren 18an, Autobidearen kontrako pentsaurrea izango da Eibarren, Azitaingo elizaren ondoan, arratsaldeko 17:30etan. Debaldeko Gaztetxean koordinadorak antolatuta.

### ■ MUSIKA EMANALDIAK TABERNETAN

Martxoaren 14an, larunbatean, hainbat tabernatan musika emanaldiak entzun ahal izango dira, arratsaldeko 19:00etatik aurrera. Iratin, *Descontrol* eta *Arkada* taldeek joko dute. Jaizalen, *Dumbaka* eta *Perkusio taldea*. Bionan, *Eskizofrenia Rock*, Ekaitzen, *Inertzia*, *Anger* eta *Gospel Killers*. Iruñen, *Parasma* eta *Mata-dero*. Lagunillan, *Komando Harrikada* eta *Epilesia*. Udalaizen, *Industria Dolor*.



*Elizondo*  
kafetegia



Garagaritza auzoa • ARRASATE • TEL.: 79 15 99

**HIES**  
**EKIMENA**

Astelehen, asteartea  
eta ostiraletan  
5etatik 8etara.

Tel.: 79 26 99



MARKO-JARTZEAK

**ALDEDI**

Biteri, 8 • ARRASATE  
Tel.: 79 13 05 • Faxa: 79 13 84



**ERRASTI KRISTALDEGIA**

Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
osagaiak

Olarte kalea, 47 behea Tel.: 79 22 55 79 14 25



**GUARDIAKO FARMAZIAK**

- Ostirala 13**
  - 10ak arte: Azkoaga, Ferrerías.
  - Gaeuz: Estella, Bergara.
- Larunbata 14**
  - 10ak arte: Español, Iturriotz.
  - Gaeuz: Mozos, Bergara.
- Igandea 15**
  - 10ak arte: Corcuera, Musakola.
  - Gaeuz: Camacho, Bergara.
- Astelehena 16**
  - Gaeuz: Irizar, Erguin
- Asteartea 17**
  - Gaeuz: Amezua, Santamaina.
- Asteazkena 18**
  - Gaeuz: Zabala, Zarugalde.
- Osteguna 19**
  - Gaeuz: Ruiz, Maala.

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

- Eritetxeak**
  - Arrasateko Eskualde-Ospit. . . 79 53 00
  - Igualatorria . . . 79 05 00
  - Santa Agedako Ospitalea (gizonak) . . . 79 39 00
  - (emakumeak) . . . 79 44 11
  - Buru osasunerako zentrua . . . 79 90 11
- Gurutze Gorria**
  - Bergara . . . 76 55 76
- DYA**
  - Antzuola . . . 78 71 57
- Anbulatorioak**
  - Arrasate (Larrialdiak) . . . 79 13 57
  - Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria . . . 77 03 46
  - Espezialitateak . . . 77 05 78
  - . . . 77 12 64
  - Oñati . . . 78 08 52
  - Eskoriatza . . . 79 98 58
  - Aretxabaleta . . . 79 74 58
  - Aramaio . . . (945) 45 51 16
- Anbulantziak**
  - Gipuzkoako ambulanziaz . . . 45 87 44
- Udaltzaingoa**
  - Oñati . . . 78 04 11
  - Bergara . . . 76 14 69
  - Arrasate . . . 79 14 39
  - Aretxabaleta . . . 79 10 52
  - Eskoriatza . . . 088
- Ertzaintza**
  - Arrasate . . . 79 71 99
- Suhiltzaileak**
  - Udal taldea . . . 79 09 00
  - Udal taldeko suhiltzaile burua . . . 79 20 72
  - Zubillagako Eskualde-Parkea . . . 088
- Matxurak**
  - Urak (udal zerbitzua) . . . 79 09 00
  - Argindarra (Iberduero) . . . 12 01 62
  - Gasa . . . 900 40 05 23
  - . . . 79 78 44
  - . . . 79 76 78
- Garraioak**
  - Taxiak . . . 79 12 22
  - PESA . . . 902 10 12 10
- Hirugarren adinekoentzako zentruak**
  - Iturbide Egoitza . . . 79 72 11
  - Abaroa jubilatuen egoitza . . . 79 81 57
- Kontsumitzailearentzako informazioa**
  - KIUB-OMIC . . . 79 51 55
- Monterron liburutegia**
  - Monterron . . . 77 01 05
- Irratia**
  - Arrasate Irratia . . . 79 58 77

**MEDIKAMENTAZOARI EZ**

**D**eba Garaiko UGTk bere gaitzespenik gogorrena azaldu nahi du gobernuak ia 800 botika finanatziario publikotik kanpo uzteko duen asmoaren aurrean. Hori dela eta, ondorengo hau adierazi nahi dugu:

- Neurri honekin, gobernuak aurrez aurre egiten dio eraso osasun sistemari eta beraz, ongizate estatuari. Hau beste urrats bat da osasun publikoa pribatizatzeke bidean.
- Neurri honekin botika multzo osoak bazterten dira, aukerarik eman gabe beste botika antzekoekin ordezkatu daitezten. Harrigarria bada ere, botika hauek agindu egingo dira aurrerantzean ere, baldin eta gaixoak bere osotasunean ordaintzen baditu.

• Gobernuak ez du bilatzen zerbitzu hobea eskaintzea, baizik eta dirua aurreratzea. Besterik ez.

• Baldin eta botika hauek balioko ez balute, Osasun Ministerioak saltzeko baimena kendu beharko lieke.

• Neurri honen zama ahalmen gutxien dutenen taldeen bizkar joango da, jubilatuak, pentsiodunak eta langabeak bereziki. Honela, eten egiten dira gure osasun sistemaren bi zutabe ezinbestekoak: *zuzentasuna* eta *elkartasuna*.

• Murrizketa hau giza eta hiri erakundeak kontuan hartu barik egin da. Farmazia enpresa handiekien bakarrak negoziatu da.

• Beste herri batzuetan, eta baita gurean ere, garbi geratu den moduan, hiritarrek botikak gehiago ordainaraztea ez da bat ere eraginkorra botika gastuak gutxitzeko.

UGT osasun publikoaren alde dago, baita botikak neurri erabiltzearen alde ere. Horregatik, milioika langabe, jubilatu, pentsiodun eta osasun profesionalen izenean,

gobernuak proposaturiko zerrenda atzera egitea eskatzen dugu. Sektore guztien arteko negoziatio gardena nahi dugu.

Negoziatio hauen bidez bizilagun guztiak iritsi beharoko lirateke osasun zerbitzu geroz eta hobetoetara.

Besteak beste, markarik gabeko botikak erabiltzea proposatzen dugu, botikak modu arrazoizkoan erabiltzeko programak garatzea, botiken publizitatean egiten diren gastuak murriztea, ontzia tratamenduen iraupe-nera egokitzea, etab.

Horregatik guztiagatik, dei egiten diegu hiritarrei osasun publikoaren alde egin dezaten eta neurri desegoki hori atzera bota dezaten.

*Deba Garaiko UGT*

**LOIDI-GARITANO ANAI-ARREBEI**

**F**uneraria Arrasatek azalpenak eman nahi ditu 1998ko martxoaren 6an aldizkari honetan agertu zen kexuaz.

Zera azaldu nahi dugu, alegia, hildakoaren etxean izan ginenean gure lana egiten, gaizki urlertu bat egon zela kalean jarri beharreko eskelen inguruan, eta horregatik ez zirela euskaraz ipini.

Gure eskelak irakurtzen dituen edonor kontura daiteke haien egitura bi hizkuntzetan azaltzen dela, euskaraz eta gaztelaniaz, horrela familiartekoek eskatzen digutenean, testua euskaraz edo gaztelaniaz joan dadin.

Lekukoak ditugu familia askotan, gai honetan dugun jarrera horixe dela baieztatu dezaketena.

Beste gauza bat ere argitu nahi dugu: hildakoaren familiartekoak konturatu zirenean martxoaren 2an hiletak egin behar ziren egunean, testua gaztelaniaz zegoela, ez zigutela inondik ere esan nahiago zutela eskela euskaraz idaztea. Azken kasu honetan ez zen inongo arazorik izango eta eskelak aldatu egingo ziren.

Beraz, gure ustez, Loidi-Garitanotarren kexua ez dator bat errealitatearekin.

*Funeraria Arrasate*

**Lankide berria**

Aste honetan lankide berria agurtu behar dugu: Naiara Gorroño mondragoetarra. San Frantzisko Xabier ikastolan eta Arrasateko Institutuan ikasi eta gero, Kazetaritza ikasi du Nafarroako Unibertsitatean. Ikusentzunezko Komunikazioa landu du han. Iruñeko Euskalerria Irratian, Radio Nacional de España eta ETBn ibilia da, bekadun gisa. Hamazazpi urte zituela *ATB Pub* saioa aurkeztu zuen. Ongi etorri!



Honekin batera, orain arte gurekin ibili den Patxi Montero agurtu nahi dugu. Eskerrik asko, Patxi, eta zortetik onena lan berrian!



# 35 orduko lanastearen alde zaude?



**Txema Garro**  
(38 urte)

**Roneoko espezialista**


Ados nago. Gaur egungo egoera ikusita, lana daukagunok solidarioak izan behar dugu eta banaketaren alde egon. Horrela, gainera, dagoen langabezia handia murriztu ahal izango da.



**Jose Mari Lili**  
(50 urte)

**Kutxako zuzendaria**

Ez naiz ausartzen bi hitzetan esatera. Gaia garrantzitsuegia da eta azterketa sakona behar du.



**Jose Ramon Landa**  
(43 urte)

**ESK-KUIS Sindikatua**


Dagoen lana denon artean banatu behar dugu. 35 ordu ondo ikusten dut, baina gutxiago irteten bada, zergatik ez? Guk ezin ditugu languneak asmatu, horregatik banaketa behar da.



**Tere Egidazu**  
(46 urte)


**Langabea**

35 orduko lanastea ono legoke, kentzen diren orduak langabeen artean banatuko balira. Baina benetan hori gertatutako da? Hor dago zalantza. Sistema honekin lana banatzen bada, primeran ikusten dut.



**Martin Lozano**  
(43 urte)  
**Langilea**

Ni bai, alde nago. Horrela jende guztiak lan egiten badu, askoz hobeto. Gainera, lan egiten dugunok lan gutxiago egin beharko genuke. Primeran.



**Juan Pablo Inda**  
(46 urte)  
**Langilea**

Ondo, ondo ikusten dut. Lana banatu egin behar da. 35 lanorduko astea jarritz gero, ordu gutxiago lan egingo genuke eta gehiagok lan egingo lukete.



**Pilar Cascallana**  
(23 urte)  
**Langilea**

Bai, noski. Irtenbide egoikia da gaur egun dugun egoera konpontzeko. Gainera, nik gozotegian egiten dut lan eta ordu asko sartzen ditut. Banatuz gero, askoz hobeto.



**Jose Mari Cabezas**  
(24 urte)  
**Langilea**

Ni bai, zergatik ez? Lana banatzeko oso ondo dago, batzuek lan gehiegi egiten dutelako eta beste batzuk lanik ez dutelako. Denontzat ondo.

**Monte**  
**taberna**

Maalako arrabala, 11  
Tel.: 79 20 56

**ORTO + LAGUN**  
O R T O P E D I A

**Berandu izan baino lehen zaindu zaitez!  
zuk nahi baduzu,  
zure osasuna zaintzeko gaude.**

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 79 89 34

**beatriz**

*oinetakoak  
eta poltsak*

Erdiko kale, 11  
Tel.: 79 14 33  
ARRASATE



USTEAK USTE

Aurrejubilazioak

**B**azterrak nahastuta dabilta inguruko kooperatibetan. Jende asko zebilen Autonomoetan kotizazio bereziak egiten, 60 urterekin jubilatuta ahal izateko. Joan den astean jakin izan zutenez, ordea, Espainiako Gizarte Segurantzaren Institutuak ez ditu aurrerantzean aurrejubilazio horiek onartuko.

Neurri horrek eragina izango du kooperatibisten artean eta baita autonomo gisa lan egiten duten guztien artean ere: beren kasa lan egitea duten kamioizaleak, idazleak, dendariak, etab. Kasurik nabarmenena, hala ere, kooperatibena da, eurak direlako antolatuta dauden autonomo ia bakarrak.

Guri, berriz, espabilatzea tokatzen zaigu. Hemendik hamar-hamabost urtera nork daki Gizarte Segurantzak zer eskainiko digun? Joera gaurkoa bada, ez da jubilatuei eusteko adina langile izango. Beraz, pentsio planetan edo antzeko irtenbidetan pentsatu behar, ez badugu nahi hartu gure inguruko askok egun hauetan jaso duten atseka-bea.

Joxe Aranzabal



Gazte Astea

Atarratz Etxebarria

**B**adira hilabete batzuk Gazte Astea burutzeko ideia sortu zenetik. Oporraldietatik gertu, edozer antolatzeako zailtasunak areagotuta, azkenean argia ikusi du aste zabal bezain oparo honek.

Gazte taldeen arteko elkarlana eta harremana sendotzeko aspaldiko asmoa berpiztu zen. Herriko gazte talde guztiei dei egin zitzairen gure ekimenak ezagutarazi eta aste bateratua burutzeko. Talde guztiak ez ziren agertu eta bilerak aurrera zihoazen eran, gonbita gehiago bidali zitzaizkien. Nahiz eta aberasgarriena talde guztiak batu ahal izatea izan, azpimarratzekoa da talde guztiak hasieratik erakutsi duten jarrera eta gogoia.

Bidezkoa deritzot talde guztiak aipatzeari, denon lana izan baita. Gainera, prentsan ez dira denak agertu. Hauek dira: AED Gazteak, Talde Antimilitaristak, Jarrai, Gazte Abertzaleak, Txatxilipurdi, Orkatz Skaut Taldea, Margo

Taldea, Txalaparta Taldea, HB Gazteak, AHTren aurkako Taldea, Askagintza, Agako, Eskola Politeknikoko Kultura Taldea, Hitza eta Ekin-tza, Arrasateko gazte, rock talde, antzerkilari, etab.

Leloak argi eta garbi azal-tzen duen moduan —“Gazte-ok batuz, elkarlana bultzatu”—, gure arteko harremanak indartzera jo dugu, baina badugu beste helbururik ere: gizarte honetan gazteok dugun garrantzia aldarrikatzea, gu baikara oraina eta etorkizuna. Komunikabideek sarritan gutaz ematen duten irudia apurtzen ahalegintzeko premia ikusten dugu. Gure irudiari gainjarritako dirua edo lana bezalako baloreak alde bate-

ra utzi eta guri ardura zaizkigunak erakutsi nahi izan ditugu. Horren isla dira, hain zuzen, astean zehar aztergai diren antimilitarismoa, Euskal Herriaren egoera, euskara, ekologia, drogomenpekotasuna, etabar. Baita herriko zenbait artistak agerian utzi dituzten zaletasunak ere.

Hala ere, oso gertukoak ditugun beste gai batzuen falta ere somatzen dut (adibidez lana eta etxebizitza). Dena den, hasieran aipatu dudak bezala, egitarau honen antolaketan talde guztien lana izan da eta bakoitzak aukeratu du zer egin. Bide batez, talde bakoitzak berak jorratutako esparruak eta ekintzak kaleratu ditu, herriari beren lanaren eta helburuen berri emanez.

Esperientzia oso polita eta aberasgarria izan da, zentzu askotan. Zail samarra, hori bai, talde bakoitzaren antolamendu erak kontuan hartu behar izan direlako. Hala ere, oso mobida baikorra izan da eta saiatuko gara jarraipena ematen. Azken hitza, horregatiko, talde guztiena da, bere-na baita lan guztia.

Bi ideia edo hausnarketa nagusi. Bat: hau guztia ez doala soilik gazte taldeei zuzenduta, taldetan sartuta ez dabilzan gazteak ere sartu nahi ditugu eta. Bi: aspaldiko partez eskoletan izandako harreman urria aldatzen ari da, aste hau antolatzeako lanari esker. Merez du.

Atarratz Etxebarria  
Hitza eta Ekin-tza



**PEUGEOT**  
Salmenta eta zerbitzua

**IBABE GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**  
Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 79 99 61 • ARRASATE

**HIES EKIMENA**  
Astelehen, astearte eta ostiraletan  
5etatik 8etara.  
Tel.: 79 26 99



astea bi hitzetan

■ **Josu Arkauzen epiketa**  
Ostegunean Madrilgo Auzitegi Nazionalak mondragotari bat epaitzekotan zen: Josu Arkauz. Hori zela eta, Arrasateko Amnistiaren Aldeko Batzordeak autobusa antolatu zuen Madrilera joateko. Josu Arkauzek sei urte egin zituen Frantziako espetxeetan. Gobernu frantsesak Goardia Zibilaren eskuetan jarri zuenean, ez zuen kargurik bere kontra. Gauegun, aldiz, bost sumario ditu zabalik. Lehenagatik bakarrik 142 urteko espetxe zigorra eskatzen diote. Arkauz Soto del Realgo espetxean dago eta zortzi hilabete daramatza erabat isolatuta.

■ **Afrikako Boli Kostari laguntzeko**  
Serso San Viator gobernuz

kanpoko erakundeak, garapen proiektu bat bultzatu du Afrikako Boli Kostan. Arrasateko San Viator ikastetxeak laguntzen du proiektu horretan, eta zenbait ekin-tza antolatu ditu dagoeneko. Orain arte, botikak eta betaurrekoak jaso dituzte ikastetxean, batez ere, antibiotikoak, handituen kontrako botikak, aspirinak eta alkohola. Gaur bertan, elkartasun afaria egingo dute. Afaria San Viator Txikin egingo da. Ateratzen den dirua Boli Kostara bidaliko da.

■ **55 milioi pta. oinezkoen zumardi bat egiteko**  
Uarkapetik Aldairaino doan oinezkoen zumardia egiteko lanak adjudikatu ditu udalak. Ubiri S. L. enpresak egingo ditu lan horiek

52.400.000 pezetaren truke. Lanen zuzendaritza berriz, LKSri eman zaio eta 2.626.000 pezetatan.

■ **San Josepe harrobia industrialdea**  
Udalak San Josepeko harrobia sei urteren buruan ixtea erabaki du beste erabilera bat emateko. 2004. urtean, erabat amaituko dira harria ateratzeko lanak eta San Josepe herriko bigarren industrialdea izango da, Markuleterekin batera. Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiaren asmoen arabera, San Josepeko harrobitik Eibar-Gasteiz autobidea pasako da. Beraz, autobia harrobiko eskuin alde-tik joango da eta 10.500 metro koadroko lur saila geratuko da lur industria-lerako.



**FAGOR ARRASATE MAKINA-LANABESAREN AZOKAN**

Aurten 1.600 erakusle elkartu dira Bilboko Makina-Lanabesaren Azokan. Fagor Arrasate ere hantxe izan da. Besteak beste transfer elektronikoko berri-berria jarri zuten erakusgai arrasatearrek. Puntako ingeniari-tza. Lana bezeroaren neurria egiten dutela erakutsi nahi izan dute.

“ 1997a urte garrantzitu izan da enplegua sortzeko orduan. 97an zehar 2.500 langune berri sortu ditugu eta dagoeneko gure langileak 34.400 dira. Hala eta guztiz ere, oraindik bide luzea dugu egiteko. Ez dakit lortzen dudan nire ingurukoak horretaz sentikortzea, baina iruditzen zait enpleguari dagokionez, ez dugula beharrezkoa den konpromezu maila. Hau loturik doa beste kontu batekin: sustapena, negozioen hazkundeak enplegua sortzen baitu, baina enplegurik garrantzitsuen jarraiera berriak sortuz sortzen da”.



**ANTONIO CANCELO**  
TU-Lankide  
1998ko otsaila

“ Ez ni ez beste atezainak ere, ez gara espezialistak penalyak gelditzen. Zorte eta sen kontua izaten da. Baina penaly bat huts egiten denean, jaurtitzen duenaren kalea izaten da”.



**IMANOL ETXEBERRIA**  
El Correo  
1998ko martxoak 11

**ITSASKI**  
ARRANDEGIA

Arrain freskoa eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa  
ARRASATE  
Tel.: 79 98 94



**Pavimentos AGR**  
ARROZTEGIA

Mota guztietako zoruak • Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak • Leihoak • Ateak  
Eskailerak • Armairu enpotratuak eta abar  
MATERIALEN SALMENTA

Erakusketa eta biltegia:  
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE  
Tel.: 77 11 20 • Faxe: 77 11 20

**HIES**  
EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiralean Setatik 8etara.

Tel.: 79 26 99



## Eztabaida Iturbide Egoitzan

Untza Klinika Laguntzai-leak izena duen enpresak, Iturbide egoitzako zerbitzuaren azpikontratazioan irregulartasunak egon direla salatu du. Enpresa hau egoitzako 12 klinika laguntzailek eratu zuten urte hasieran, Iturbide egoitzako zerbitzua azpikontratatzea erabaki zenean.

Adjudikazioa lortzeko lehiaketara Untza eta Auzo Lagun enpresak aurkeztu ziren. Epaimahaiak Auzo Laguni adjudikatu dio zerbitzua, puntuaketan bi dezima gehiago atera bide dituelako.

Kontua da, Untzako langileek irregulartasunak ikusi dituztela epaimahaiaren lan egiteko eran eta Auzo Lagunek aurkeztutako dokumentazioan. Jose Mari Loitik Untzako langileei esan zenez, adjudikazio prozesua zuzena izan da eta Auzo Lagunek egiaztatu egingo du aurkeztutako dokumentazioa. Opozisioko alderdiek ordea, adjudikazioaren kontra egin dute.

### Jaiotzak

- Joan Ander Arizaga Muri-  
llo. Martxoaren 4an.

### Hildakoak

- Isidra Bilbao Garai. 78  
urte. Martxoaren 1ean.
- Gregoria Milicua Iturralde. 93 urte. 1ean.
- Alejandro Jesus Marco  
Ortega. 65 urte. 2an.
- Ildefonsa Etxabe Maskar-  
iano. 77 urte. 2an.
- Atilano Ramos Gamazo.  
84 urte. 3an.
- Bibiana Iria Egiluz. 93 urte.  
3an.



Ez omen da legerik aldatu. Aldatuko dena izango da legearen interpretazioa.

# Alarma kooperatibetan, aurrejubilazioak direla eta

Egun hauetan ez da beste hizketagairik izan Arrasateko kooperatiben inguruan. Oraintsu jakin izan denez, datorren hiletik aurrera edo, Espainiako Gizarte Segurantzako Institutuak ez du onartuko aurrejubilaziorik autonomoentzat, orain arteko baldintzetan behintzat. Beraz, 60 urterekin jubilatzeke asmotan zeuden autonomo askok eta askok beste soluzio batzuk bilatu behariko dituzte.

Berez 65 urterekin jubilatzen dira langile gehienak, baina orain arteko legediak onartzen zien autonomoei 60 urterekin aurrejubilatzea. Horretarako, baina, baldintza batzuk bete behar ziren. Lehena zen 1967. urtea baino lehen kotizatzen hasi izana. Horrekin batera, jubilatua baino lehen geratzen ziren

azken bost urteetan bakoitzaren enpresak kotizazio bereziak egin behar zituen Autonomoetan, 65 urterekin jubilatuz gero kobratuko zuen %90 kobratu ahal izateko.

Oraintsu jakin izan denez, ostera, autonomo askok —eta Lagun Aroko guztiak autonomoak dira— ez dute aukerarik izango 60 urterekin jubilatzeke.

**Mondragon  
Kooperatiba  
Korporazioan bakarrik,  
1.000 eta 1.500  
langile egon daitezke  
aurrejubilazioaren zain,  
eta Lagun Aron  
gehiago**

Mondragon Kooperatiba Korporazioan bakarrik 1.000 eta 1.500 langile egon daitezke aurrejubilazioaren zain, eta Lagun Aron gehiago, jakina. Berez ez omen da legerik aldatu. Aldatu bide dena da legearen interpretazioa: orain arte Espainiako Gizarte Segurantzako Institutuak bai esaten zuen kasuetan aurrerantzean ez esango du, eta kitto.

Aldaketa hau kooperatibistei ezezik, autonomo guztiei ere eragingo die: beren kontura lan egiten duten kamioizaleei, dendariei eta mekanikoei, esate baterako.

Albistearen joan den astean zabaldu zen Arrasaten. Asteburu honetan ez da beste mintzagairik izan adin batetik gorako jendearen artean.



# Arrasateko lurren erdia baino gehiago basoa da

Arrasateko udalerrriak 3.300 hektarea ditu eta horietatik 2.300 basoak dira. Horrela azaltzen da Eusko Jaurlaritzak egindako inbentarioan. Zatiirik handiena baso trinkoa da. Bestea zelaiek eta sasiek betetzen dute. Baso-erako zuhaitzak konifera familiakoak dira gehienbat eta 1.600 hektareako hedapena dute. Koniferarik arruntena eta hedatuena pinua da. Horien artean aipagarria, bakarra delako, Monterron parkeko sequoia ezaguna.

Zuhaitzei dagokienez, artea da gehien dagoena. Zuhaitz hauek dira Arrasateko aberastasunik handiena, beste herri batzuetan zaila da eta, Udalatxan malde-tan dagoen arteen basoa bezalakorik aurkitzea. Guztira 287 arte daude Udalatxeko lur aldapatsuetan. Arteaz gain, urkia, makala, astigarra, eta antzeko zuhai-

tzak aurki daitezke. Hauek, 102 bat zuhaitz, baso atlantikoaren osatzen dute.

Zuhaitziaz hitz egitera-koan, Gipuzkoako Foru Aldundiak Musakolako Saburdi mendian landatutako basoa aipatu behar. Han mota guztietako zuhaitzak landatu zituen aldundiak modu esperimentalean eta, oraingoan, urruneko lurraldeetatik ekarritako zuhaitzak ere, arazo barik hazi dira.

## ZUHAITZ EGUNA

Zuhaitz Eguna antolatu du gaur Arrasateko Udalak. Goizean herriko 6. mailako ikasleek 250 zuhaitz birlan-datu dituzte Hidalgo mendian. Mendi hau iazko urrian erre zen eta kaltetutako lurretan haritzak, astigarrak eta lizarrak landatu dituzte. Zuhaitzak, Garagartzako Jai-berri baserriaren inguruan zeuden desagertzeko zorian.



## Basoen erabilera Arrasaten

Erabilera	Eremua (Hektareak)
Hirikoa	317
Harkaiztiak eta padurak	104
Zelaiak	490
Bazkalekuak	6
Sasiarteak	125
Arbola askoko basoa	2.160
Arbola gutxiko basoa	119
Lan trinkoak	7
<b>Guztira</b>	<b>3.327</b>

# ANTZERKI

# ESKOLA

(16 urtetik gorakoentzat)

Martxoaren 26an hasita  
San Joanak arte,  
11 astez  
Ostegunetan,  
arratsaldeko 6.00etatik  
9.00etara

### Matrikula

- 7.000 pta.
- 6.000 pta. bazkideak
- 5.000 pta. ikasleak eta langabeak

Izen ematea eta berri gehiago:

**AEDn edo**  
**77 12 28 telefonoan**  
**martxoaren**  
**20a baino lehen.**

**ANIMA ZAITEZ!**





# Euskadiko Kutxak 16.340 milioi pezeta irabazi zituen iaz

Gaur aurkeztu dira 97ko datuak urteroko Batzar Orokorrean

Caja Laboralek urteroko Batzar Orokorra egin du gaur. Zuzendari orokorrak aditzera eman duenez, 97a oso urte ona izan da Euskadiko Kutxa. Iazko urtealdian, zergen aurreko irabazia 16.340 milioi pta.koa izan zen, 96an baino %16,5 baino gehiago. Negozioaren hazkunde horretan zeresan handia izan dute familiei eta enpresei zuzendutako kreditu-inbertsioek. Izan ere, gorakada nabarmena izan dute: 84.350 milioi pta.

Iazko jardueraren ezaugarri nagusia interes tasen etengabeko jaitsiera izan da. Horrek banketxeen arteko lehiakortasuna piztu du eta presiopean lan egin behar izan

dute. Dena den, interes tasen jaitsierari esker, kreditu gehiago eskatu dira eta burtsa merkatuaren bilakaera ere ona izan da.

Iazko jardunarekin 2000. urtera arte iraungo duen plan estrategikoari heldu dio Euskadiko Kutxak. Egitasmoaren helburu nagusia errentagarritasun handiagoa lortzea da. Bezeroei eskainitako aholkularitza ere, kalitatezkoa izatea nahi du Caja Laboralek. Horretarako zergen inguruko trebakuntza berezia izan dute publikoarekin lana egiten duten langile guztiek. 1998ak erronka berria ekarriko dio sektoreari, Europako diru batakuna dela eta.

## Bulegoen banaketa herrialdeka

Bulegoak	1997	1996
Araba	32	32
Bartzelona	1	1
Bizkaia	78	76
Burgos	5	1
Kantabria	1	1
Gipuzkoa	75	73
Errioxa	7	6
Madril	1	1
Nafarroa	43	42
<b>Guztira</b>	<b>243</b>	<b>233</b>

## Ezker Sindikalak bulego bat zabalduko herrian

Joan den ostiralean Deba Garaiko Ezker Sindikalak prentsaurrekoa egin zuen Arrasateko udaletxean. Orain arte Comisiones Obreras sindikatuan egin dute lan, korrante sindikal moduan.

Datozen egunetan utzi egingo dute CCOO eta Ezker Sindikaleko kide egingo dira.

Ondoren, beste sindikatu batzuetatik jaso dituzten eskaintzak aztertuko dituzte.

CCOO gehiegi burokratizatu dela salatu zuten, ez duela autonomiarik Euskal Herriak bizi duen arazoaren aurrean, eta ez dela nahiko arduratzen gazteek eta langabeek dituzten arazoez.

Ezker Sindikalak Nafarroan eta Deba Garaian du indarririk handiena. CCOO Deba Garaian zuen ejekutibako hamalau lagunetik zortzi joan dira Ezker Sindikalera. Laster, bi bulego irekiko ditu Arrasaten eta Bergaran, bazkideei eta, sindikatuekin lotutako zerbitzuak

eskaini ahal izateko.

Adierazi zuten legez, ez dute sindikatu berririk sortuko. Hori bai, denbora bat hartuko dute LAB, ESK-KUIS eta CGT sindikatuetatik jaso dituzten proposamenak aztertzeke. Akaso Maiatzaren Lehenerako erabakita izan lezakete nora jo.

**Hilbera  
kafetegia**

Uribarri Etorbidea  
ARRASATE  
Tel.: 79 22 70

**TTUKUN**

Fotokopiak  
Liburu josteak  
Fotokopiak koloretan  
Planoen kopia  
Offset-a  
Ferrerias, 23 • ARRASATE  
Tel.: 79 46 62

**UGARTE**

Industria  
hornidurak

Arrasate pasealekua  
Tel.: 79 83 96 / 79 23 00  
Fax: 793412

**GORKA**  
ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA  
Ferrerias, 35 ARRASATE  
Tel.: 77 13 78



# AURKITU DUZU AKATSIK?

Zure telefonoa agertu ez bada edo akatsik aurkitu baduzu, dei egin apirilaren 3a baino lehen 77 08 15 telefonora edo zatoz ARKOra (Otalora Lizentziatua, 31).  
APIRILAREN 24an egon litezkeen akatsen zuzenketa orri bat argitaratuko dugu.

Mila esker.

## Gida 98



Arrasate • Leintz Gatzaga

Aretxabaleta • Eskoriatza

ARKO (Arrasate Komunikabideak)

Leintz Bailarako profesional eta zerbitzu guztiak zure esku.

## Zure telefonoaren lagunik onena!



## TALOAK ETA TALOAK

Ekin taldeko emakumeek egiten dituzten taloek gero eta arrakasta handiagoa dute. Ezagunak dira Santamasetan taloak erosteko jendeak egiten dituen ilarak. Martxoaren 8an beste hainbeste gertatu zen. Lehenengo aldiz, herriko plazan jarri ziren Ekineko emakumeak taloak egiten eta dohainik banatu zituzten. Arratsaldeko 15:00ak arte jardun behar izan zuten bildutako lagun bakoitzari talo bana eman ahal izateko!




1930EKO KINTOEN BAZKARIA

1930ean jaiotakoak dira argazkiko guztiak. Soldadutzara batera joan zirela eta, bazkaria egin zuten joan

den zapatuan Musakolako Hostalean. Aurretik meza izan zuten San Franzisko elizan. Bazkalondoan solda-

duzka gora, soldaduzka behera ibiliko ziren seguraski. Aitzakia besterik ez, lagunarteko bazkaria egiteko.



**TANDEM  
BIZIKLETAK**

Zarugalde, 8 • ARRASATE • Tel.: 79 56 38

**IRATI TABERNA**

Ferrerias kalea • Tel.: 79 56 11  
ARRASATE




## FESTA SAN JUAN DE DIOS OSPITALEAN

San Juan de Dios Ospitaleko gaixoeak primerako eguna pasatu zuten joan den larunbatean. Zaindariaren eguna ospatzeko berbena, futbol partida, txokolatada eta zezen mekanikoa izan zituzten. Ospitalera jende ugari joan zen gaixoeekin festa egitera. Egun ahaztezina izan zen batentzat baino gehiagorentzat!



Oier Aranak —eskuinean argazkian— San Frantzisko Xabier ikastolak zozkatutako ordenagailu paregabear irabazi du. Zozketa ikastolako REM 2. kurtso-ko ikasleek antolatu zuten ikasturte bukaerako bidaia ordaindu ahal izateko. Errifan salmentari esker, Saloura joango dira San Frantzisko Xabier ikastolakoak. Bat erosteagatik ordenagailu ederra eraman du Oierrek etxera. Eñaut Azkoagak ikasleak eman zion saria.



### ORDENAGAILUAREKIN ETXERA

## IZENAK

### Jose Ramon Goikoetxea

arrasatearra da LKSkokozuzendari orokor berria. Ingeniaritza Teknikoa ikasi zuen Eskola Politeknikoan. Fagor Sistemaseko zuzendari orokorra izana da. MCCko Ingeniaritza eta Aholkularitza Elkarteko zuzendaria ere bada.

### Julio Gorroñoitia

izan liteke Arrasateko bake epailea, baldin eta Arrasateko Udalak onartzen badu osoko bilkuran Gobernu batzordeak zentzu horretan egingo dion proposamena. Gorroñoitia Eskola Politeknikoko irakasle izan zen, gaur egun jubilatuta dago eta behin behineko bake epaile izana da.

**FELIPE  
MADINA  
ZURAK**

Zarugalde, 40 ARRASATE  
Tel.: 79 13 78

**ARRASATE  
HOTELA**




Biteri, 1 Tel.: 79 14 16  
ARRASATE



Bonaventure • Diesel  
Pepe • Levis

Otalora, z/g Behea ARRASATE  
Tel.: 79 11 72

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 79 87 62




**Hello friends!**

**This is Michael Morris, an English teacher.**

*Badakizue munduan ibiltzeko ezinbestekoa dela ingelesa.*

*Horregatik egin dut hiztegi hau, Euskal Herria eta mundua lotzeko ezinbesteko tresna.*

**Connecting Basques and the world.**



**Euskara-Ingelesa ●  
Ingelesa-Euskara ●  
Hiztegia:**

**1.200 orri ●**

**80.000 hitz ●  
eta adiera**

**Eranskin ●  
gramatikal zabala**

**Irudiak, mapak ●  
eta bestelako  
ikasmateriala**

**Inglaterra ●  
nahiz EEBBeko  
ingelesa  
ahoskatzeko gidak**


**1. alearekin  
tapak doan**

**Otsailaren 28tik aurrera,  
asteazken eta larunbatetan 225 pzta. + **Egunkaria****



# Arrasate dantzan

Arrasaten gaur egun ematen diren dantza ikastaroetara joatea besterik ez dago, herri dantzaria dugula ikusteko. Saltsa, merengea, jazz-a, arin-arina, tangoa, rock&roll-a, gaur egungo dantza..., edozein dantza ikasteko aukera dago eta asko dira aprobetxatzen dutenak. Ehundaka lagun pasatzen dira urtero Gazte Bulegoak eta beste talde batzuek antolatutako ikastaroetan. Gehienek errepi-katu edo beste dantzaren bat ikasten dute. Zer eman-go ote du dantzak?



**G**azte Bulegoan zerrenda luze bat egin dute, dantza egin nahi duten laguneren izenekin.

Leku arazoak tarteko, ikastaroetatik kanpo geratu direnek osatzen dute zerrenda. "Herri dantzaria dugu —esan du Blanka Jauregik, Gazte Bulegoko arduradunak— ez du zer ikusirik beste herri batzuekin. Arrasaten jendeak dexente aurretik ematen du ize-na hurrengo ikastaroan sartu ahal izateko". Une honetan, hiru ikastaro daude Gazte Bulegoak antolatuta. Horretaz gain, saloi dantzak eta euskal dantzak ematen ari dira, beste talde batzuek antolatuta. Jende mugimendua ikaragarria da.



Dantzak ez du adinik. Goiko argazkian, Juana eta Honorio senar-emazteak dantza egiten. Juanak 65 urte ditu eta Honorio 71. Beheko argazkian lau eta zazpi urte bitarteko haurrak euskal dantzak ikasten.

## SALOI DANTZAK

Natalio Maiztegi oñatiarrak areto dantzak irakasten ditu. Arrasaten adin guztietako ehun bat lagunek *vals-a*, *tangoa*, *bachata*, *roc&rolla*, *pasodoblea* eta beste hainbat dantza ikasten dute harekin. "Herri

askotan ematen ditut eskolak eta Arrasateko moduko bizitasunik ez dut inon ikusi. Aurtengainera, uste dut boladan gainera, uste dut boladan jarri dela". Santa Agata ospitaleko gaixoei eta Iruñeko elbarri talde bati ere ematen dizkie eskolak. "Dantza oso

terapeutikoa da, gaixoak alaitu egiten dira eta. Gutxitasun fisikoren bat dutenek ere, dantza egin dezakete. Oso baliagarria da arlo guztien garapenerako. Arrasaten gor bat izan nuen ikasle eta primeran ulertzen zuen dantza". Ikas-

leek eguneroko arazoak ahazten dituzte dantzari esker. Gehienek esaten dute lagun asko egiten direla. Eskoletatik kanpo, dantza egiteko gertatzen dira. "Gu Ostarkura joaten gara askotan. Lehenago zabaltzeko eskatzen diogu eta



pista osoa guretzat izaten da”, esan digu Nataliok.

## EUSKAL DANTZAK

Ehundaka lagunek, gehienak gazteak, ikasten dituzte euskal dantzak. Lore Gazteak taldeak 40 lagun inguru erakartzten ditu ikastaro bat antolatzten duen bakoitzean. Horrez gain, Txikitxu eta Arrostitz dantza taldeetan ehunetik gora lagun dabilta. Lautik hamahiru urtera bitarteko 85 haurrek ikasten dituzte euskal dantzak: zinta dantza, arku dantza, fandangoa, arin-arina, banako, txakarrankua... Denborarekin, batzuk Arrostitz dantza taldean sartzen dira eta besteak dantzak utzi eta takewondo edo ingeles ikastaroe-tan hasten dira.

Nagusiek, ikastaro motzagoak dituzte kaleko dantzak ikasteko. Santamases aurretik eta San Joanak baino lehenago antolatzen dira. Adin guztietako jendeak ikasten du arin-arina edo fandangoa.

## GAUR EGUNGO DANTZA

Herriko gazte batzuek egin zuten proposamena Gazte Bulegoan ikastaro hau antolatzeko. Jendearen interesa ikusita, ikastaroa antolatu egin zen eta hogeita hiru lagunek eman zuten izena.

Ana Mendiola donostiarrak asteartetan gaur egungo dantza eta larunbatetan jazz-a ematen du Arrasate Musikalen. “Gaur egungo dantzak teknika eskatzen du, dantza klasikoaren antzekoa da eta. Arrasateko ikasleek benetan ikasi egin nahi dute, dantza ulertu. Jazz atalean, *Fama* serie famatu hartako dantza ari dira ikasten. Erritmo handia du eta alaiagoa da. Ikasleak beste *puntu* batekin etortzen dira, dibertitzeko gogo handiagorekin”. Arrasateko taldean bi mutil dabilta. Anak dioenez, “oso arraroa da mutilak ikustea saio



Saloi dantzen ikasleek, saltsa, cha-cha-cha, tangoa, vals-a, eta beste zenbait dantza ikasten dituzte.

hauetan. Arrasaten jarrera baikorra duen jendearekin egin dut topo eta hori irakaslearentzat oso garrantzitsua da”.

## ADIN GUZTIETARAKO

Dantza egiterako orduan, adina ez da muga. Bestela, galdetu Honoriori eta Juanari. Senar-emazte hauek Santa

Teresan bizi dira. Gizonak 71 urte ditu eta emakumeak 65. Berbenetara joaten ziren bakoitzean pasodobleak bakarrik dantzatzeko zituztela eta, beste dantza batzuk ikastera animatu ziren. Esan eta egin. Familia eta Gizarte Zentrura joaten dira astean behin Nataliok ematen dituen saioetara. “Berehala igarotzen zaigu kla-

sea —kexu da Juana— luzeagoak izan beharko lirateke”. Juanarentzat oso mesedegarriak izan dira eskolak: “belau-netan eta mokorrean min izan dut beti. Dantza egiten dudanetik... ez dut min gehiagorik izan!”. Bien alaba ere joaten da dantza eskoletara. Berak jartzen dizkie *etxeko lanak*, etxean dantza egin dezaten.



**Ikasleek eguneroko arazoak ahazten dituzte dantzari esker. Gehienek esaten dute lagun asko egiten direla. Eskoletatik kanpo ere, geratu egiten dira dantzan egiteko. Tamalez, dantzaleku berezietara joan behar izaten dira ikasitakoa praktikan jartzeko, Arrasaten ez dago eta, dantza egiteko leku aproposik.**





## Julio Lantigua

Karibeko dantzen irakaslea

— **Dantza odolean eramaten da ala ikasi egiten da?**

— Gauza bitxia da. Batzuek odolean daramagu, baina edozeinek dantza dezake Karibeko batek baino hobeto. Gustukoa izanez gero, edozein dantza ikas daiteke.

— **Zer behar da Karibeko dantzak ikasteko?**


— Guk ez diogu hemen ematen zaion garrantzirik ematen ondo edo gaizki dantzatzeari. Gure dantzak bat-bateotasunean oinarritzen dira. Bizpahiru pauso ikasi eta gero bat-batean asmatu.

Dantza biziak dira.

— **Giroa beraz, berezia da hemen...**

— Guztiz berezia. Karibean umeak, gazteak eta zaharrak batera ibiltzen gara, batzen gaituen zerbait dagoelako: dantza. Dena dantzaren inguruan antolatzen da. Giza harremanetarako balio du, baita dibertitzeko ere. Hemen, 50 urteko emakume batekin dantzatzan egiten badut, bere seme-alabak lotsatu egiten dira. Ni, berriz, neure amarekin joaten naiz diskotekara, harekin egiten baitut hobetoen dantzan.

— **Arrasaten dantza**



**boladan dagoela uste duzu?**

— Gazte bulegoko arduradunek oso lan ona egin dute ikastaroak antolatzen eta erantzuna izugarria izan da. Hemendik adin guztietako jendea animatu nahi dut. Ariketa fisikoa egiteaz gain, erritmoa eta Karibeko kultura ikas daitezke eta, primerako giroan.

“Gustura egiten dugu dantzan. Alaitasun berezia ematen dizu. Gainera lotsa galtzen duzu, eta hori oso garrantzitsua da”. *Cha cha cha*, *vals*, *merenge*, *saltsa*, denetik ikasi du bikoteak. Juanak eta Honoriok dena den, pena dute Arrasaten nagusientzat prestatutako dantza-lekurik ez dagoelako. “Dantza egiteko leku bat zabalduko balitz, ziur gaude kokoteraino beteko litzatekeela gu bezalako lagunekin”.

Dantza egin ahal izatea *luxua* da. Batzuek pausok ikasi baino, lagunak egingo dituzte. Beste batzuentzat adierazpide bilakatuko da dantza, eta askorentzat nork bere gorputzarekin eta buruarekin gustura egoteko bidea da. Zer emango ote du dantzak? Dantza eginez ikusi behar. ■

Marian Porcel

## Juan Karlos Gomez Zabala

Karibeko dantzen ikaslea

— **Zergatik eman duzu izena dantza ikastaro batean?**

— Beti gustatu izan zait dantza egitea. Kuban izan nintzen eta saltsa ikasteko gogoia sartu zitzaidan. Lehenengo hastapen ikastaroa egin nuen eta orain sakontze maila.

— **Ikastaroetan ikasitakoa praktikan jartzen duzu?**


— Saltsa edo merengea dantzatzeko Gasteiz, Zornotza edo Durangoko leku berezietara joan behar zara, herriko tabernetan ez dute-

lako horrelako musikarik jartzen. Pena da herritik irten beharra, autoak eta edari tropikalak ez dira eta, lagun onak.

— **Irakasleak animatu egiten zaituzte?**

— Bai, eta batzuetan haserretu ere bai. Berak gerria mugitu behar dugula esaten du, baina Euskal Herrian Karibean baino hotzagoak eta gogorragoak gara. Dena den, denborarekin askatuko gara...

— **Arrasaten Karibeko dantzak puri-purian dau-**



**dela uste duzu?**

— Gaur egun 30 bikote gaude eta gehienak Arrasatekoak. Ez dakit boladan dagoen ala gustukoa duten, besterik barik. Akaso eurak ere Kuban ibilitakoak izango dira.





## Adi-adi azken partidetan

**H**elburua hirugarren aldira sailkatzea da, baina horretarako maila erakutsi behar bigarrenen. Talde batzuek dagoeneko erdi ziurtatuta dute hurrengo aldiko txartela. Beste batzuek sailkatzea lortuko dute, azken jardunaldietan lortutako emaitzen arabera. Baina bada aukerarik ez duen talderik ere. Txapelketa batean denetik izan behar!

### Laburrak

#### ■ AUKERA GUTXIKO TALDEAK

A taldean, Ke Oxtias eta Jotakabau taldeek partida guztiak irabazi behar dituzte sailkatu ahal izateko. Lan zaila benetan. B taldean, Lautherbrunen eta Tamagotxi larri-larri dabil-tza. D taldean, Atletico Cela-

ya. Azken taldean, berriz, DKB. Bestalde, Txeyenex eta Totem puntu barik daude, baina neurketa bat gutxiago dute. Atzeratu zen partida San Josef Zubiaren ostean jokatu da. Zubi horretan ez baita partidarik jokatu, ez Zaldibarreren, ezta Uribe Auzoan ere.

#### ■ PARTIDA GOMENDAGARRIAK

Asteburuero legez, partida interesgarriak jokatu dira. Larunbatean jokatu diren lau azpimarratuko ditugu. Leya eta Txeyenex goizeko 10:00etan izango dira nor baino nor. Naranja Mekanika eta

Insert Coin 14:00etan. Arratsaldean, berriz, Estrella tabernak Aldibi liderra izango du aurkari eta Irati STS taldeak Garaje Oscar. Jokoa puntuak baino zerbait gehiago izango dira. Igandean, Argi Ibili eta AC Surcos duten onena ematen saiatuko dira eguerdian.

### ▲ CITROËN DIESELEN OLINPOA



CITROËN SAXO DIESEL  
270.000+80.000  
Pta.ko aurrezpena Pta. Prever Egitasmoa



CITROËN XSARA DIESEL  
350.000+80.000  
Pta.ko aurrezpena Pta. Prever Egitasmoa



CITROËN XANTIA TURBODIESEL  
350.000+80.000  
Pta.ko aurrezpena Pta. Prever Egitasmoa

Hil bukaera arte

▲  
CITROËN

▲  
CITROËN

## Chapime Lantegiak

Araba etorbidea, z/g • ARRASATE  
Tel.: 79 06 57 / 79 45 22 / 77 08 67  
Faxa: 77 10 47



## Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
Sokoakoak	3	3	0	0	15	6	<b>6</b>
Naranja Mekanika	3	3	0	0	22	11	<b>6</b>
Aurrera Bolie	3	2	0	1	17	7	<b>4</b>
Zotz	3	1	1	1	14	12	<b>3</b>
Nuevo taberna	3	1	0	2	23	17	<b>2</b>
Insert Coin	3	1	0	2	13	16	<b>2</b>
Jotakabau	3	0	1	2	12	12	<b>1</b>
Ke oxtias	3	0	0	3	6	33	<b>0</b>

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
Argi Ibilii	3	3	0	0	28	10	<b>6</b>
AC Surcos	3	3	0	0	21	9	<b>6</b>
Koka Juniors	3	2	0	1	26	6	<b>4</b>
Pepelus	3	1	1	1	15	15	<b>3</b>
Betrayer	3	1	1	1	13	18	<b>3</b>
Jako al Rey	3	1	0	2	8	17	<b>2</b>
Lautherbrunen	3	0	0	3	12	25	<b>0</b>
Tamagotxi	3	0	0	3	8	31	<b>0</b>

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
Garaje Oscar	3	3	0	0	13	6	<b>6</b>
Irati STS	3	2	0	1	22	8	<b>4</b>
Fraguel Gol	3	2	0	1	8	5	<b>4</b>
DA Iriztu	3	1	1	1	7	7	<b>3</b>
Los Heredia	3	1	1	1	9	10	<b>3</b>
Jey Holigans	3	1	0	2	7	10	<b>2</b>
KKjauri	3	1	0	2	7	10	<b>2</b>
AT Celaya	3	0	0	3	7	14	<b>0</b>

E taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
Aldibi	3	3	0	0	18	7	<b>6</b>
Lorategi	3	3	0	0	24	11	<b>6</b>
Branka Taberna	3	2	0	1	15	15	<b>4</b>
Leya	3	1	1	1	18	18	<b>3</b>
Estrella Taberna	3	1	0	2	18	20	<b>2</b>
DKB	3	0	1	2	16	27	<b>1</b>
Txeyenex	2	0	0	2	7	12	<b>0</b>
Totem	2	0	0	2	2	8	<b>0</b>

## Emaitzak

### A taldea

Naranja Mek. 3 - Aurrera Bolie 2  
Sokoakoak 7 - Zotz 1  
Nuevo taberna 14 - Ke Oxtias 2  
Jotakabau 0 - Insert Coin 7

### B taldea

Argi Ibilii 7 - Pepelus 4  
Koka Juniors 8 - Jako al Rey 0  
Betrayer 8 - Lautherbrunen 3  
Tamagotxi 5 - AC surcos 9

### D taldea

Fraguel Gol 1 - Garaje Oscar 2  
DA Iriztu 1 - KKjauri 1  
Jey Holigans 4 - AT Celaya 2  
Irati STS 2 - Los Heredia 4

### E taldea

Estrella taberna 5 - Leya 7  
Branka taberna 4 - Totem 2  
Lorategi 11 - DKB 3  
Txeyenex 3 - Aldibi 5

## Hurrengo partidak

### Martxoak 14, larunbata

#### Zaldibar

8:50 Jako al Rey - Betrayer  
10:00 Txeyenex - Leya  
11:00 Fraguel Gol - Los Heredia  
12:00 DA Iriztu - AT Celaya  
13:00 Sokoakoak - Ke Oxtias  
14:00 Naranja Mekanika - Insert Coin  
15:00 Branka Taberna - DKB  
16:00 Totem - Lorategi  
17:00 Jotakabau - Aurrera Bolie  
18:00 Estrella taberna - Aldibi  
19:00 Irati STS - Garaje Oscar

### Martxoak 15, igandea

#### zaldibar

8:50 Tamagotxi - Pepelus  
10:00 Zotz - Nuevo taberna  
11:00 KKjauri - Jey Holigans  
12:00 Argi Ibilii - AC Surcos  
13:00 Koka Juniors - Lautherbrunen



## Uribe auzoa txapelketa

### Hurrengo partidak

#### Martxoak 14, larunbata

##### Iturripe A

8:50 Hilarion jatetxea - Decadencia  
10:00 P3000 - Felpudo Maldito  
11:00 Munar Txiki - Borrock Roll  
12:00 Kalandrax - Racing Molotov  
13:00 Dribling - Komando Alpagat  
14:00 Medio Grano - Cartonaje Igamo  
15:00 Milan Tokao - Babajana  
16:00 Xhass - Leya  
17:00 Ainarexia - El Milagro de Bautiusta  
18:00 Lontxo taberna - Balon Rojo  
19:00 Bortxitxak - Akta

##### Iturripe B

14:00 MR Magoo - Potrosorri  
15:00 Tratabares - Elvis Team  
16:00 Spoting - La Ostra Azul  
17:00 Sporting de Tronpetas - Nuevo Tab.  
18:00 Mendizabal - Argi Plastic  
19:00 Pening Lapsus - Txotx

#### Martxoak 15, igandea

##### Iturripe A

11:00 ReX 22 - Astoen Villa  
12:00 Kamasutra - Fraguel Gol  
13:00 DKB - Rotor de Bolbogrado

##### Iturripe B

11:00 Massive - Chuleton Rovers  
12:00 Piernodoiuna - Zigarro Mutilzaharrak  
13:00 Blind - Doble Cero

## Emaitzak

### A taldea

Naranja Mekan. 3 - Aurrera Bolie 2  
Sokoakoak 7 - Zotz 1  
Nuevo taberna 14 - Ke Oxtias 2  
Jotakabau 0 - Insert Coin 7

### B taldea

Argi Ibilii 7 - Pepelus 4  
Koka Juniors 8 - Jako al Rey 0  
Betrayer 8 - Lautherbrunen 3  
Tamagotxi 5 - AC Surcos 9

### D taldea

Fraguel Gol 1 - Garaje Oscar 2  
DA Iriztu 1 - KKjauri 1  
Jey Holigans 4 - AT Celaya 2  
Irati STS 2 - Los Heredia 4

### E taldea

Estrella taberna 5 - Leya 7  
Branka taberna 4 - Totem 2  
Lorategi 11 - DKB 3  
Txeyenex 3 - Aldibi 5

### ■ IZEN ALDAKETA

Bigarren jardunaldia jokatu eta gero etorri da txapelketako lehen izen aldaketa. Motonabo Turbo izenaz ezagutzen zen taldea Lontxo Taberna izango da hemendik aurrera. Gainontzean lasaitasuna nagusi Uribe Auzoa txapelketan.



Born Jay txirrindulari taldeko zuzendaria

## JOSU ESTEVEZ

*“Aurten helburu handiagoak ezarri ditugu eta lortuko ditugulakoan nago”*

— 98 denboraldia hasi da. Zeintzuk dira zuen helburuak?

— Talde moduan irudi ona ematea, gazteak mailari egokitzea eta, ahal bada, lasterketaren bat irabaztea. Afizionatuetan hiru urte daramatzagu eta aurten gehiago eskatu behar diogu geure buruari. Iaz, zazpi itzuli jokatu genituen; aurten beste horrenbestetan izango gara, baina lan hobea egiteko asmoz.

— Aurpegi berri asko dago eta gazteak. Hori ona da?


— Iaz baino talde hobea dugula esan daiteke. Jende berria ona da eta itxaropentsu gaude egin dezaketena-ekin. Afizionatuetan batez ere Euskadin dagoen maila ez da nolanhikoa. Kanpoko txirrindulariek hemengo taldeetara etorri nahi izaten dute.

— Taldea aurrera eramateko txirrindularirik baduzue?


— Bai. uste dugu Jon Unamuno eta Gaizka Sojak denboraldi bikaina egingo dutela aurten. Iaz aurrean ibil daitezkeela erakutsi zuten eta aurten aurrean ikusi nahi ditugu.

— Zein eginkizun du zuzendariak?

— Ordena jarri, lasterketetan taxista lanak bete eta txirrindulariei aginduak eman. Gustura egiten dugun lana izan arren, batzuetan nekeza izan daiteke. Hala ere, ez gara kexatzen.




## ERRUGBIA Azken jardunaldia



Arrasate Kirolak Errugbi Taldeak denboraldiko azken jardunaldia jokatu du larunbatean Garagartzako zelaian, arratsaldeko 16:45etan. Euskal Herriko Unibertsitatea izango dute aurrean. Bizkaitarrek talde sendoa dute, baina aurtengo denboraldia ondo bukatzeko garaipena behar du etxeko taldeak. Behin partida ofizialak bukatuta, jokalariek entrenatzen segituko dute.

## SASKIBALOIA Loiola Iturripen



Arrasate Saskibaloia taldeak Loiolaren kontra neurtuko ditu indarrak larunbatean, arratsaldeko 18:00etan Iturripen. Hauentzat ez dago partida samurrik eta garaipena da helburu bakarra. Hamabigarren jardunaldiko aurkaria sailkapeneko hirugarren tokian dago.

## FUTBOLA Emakumeek atsedena




Mondrako Emakume Taldeak atsedena izango du asteburu honetan.

Azken jardunaldian Lagun Onak taldearen kontra 3 eta 0 irabazi ondoren, taldeko jokalariek indartsu eta gogoz daude berriro. Oraingo atsedenaekin ideiak finkatzeko aukera izango dute. Hemendik bi asteburu barru zer egiteko gauza diren erakutsi beharko dute Iruñeko Lagunak taldearen kontra.

Preferente mailako Mondrako bigarren postuaren bila ari da

buru belarri. Une honetan lide-rra Eibar taldea da. Hauek alde handia ateratzen dietenez gainerako guztiei, lehia bigarren tokirako izango da. Mondraren batera, Lazkao, Trintxerpe eta Real Union ari dira lehian. Datorren larunbatean, Jesus Mari Barrutiabengoak zuzentzen duen taldeak Lazkaoren kontra jokatu du, arratsaldeko 16:30etan. Hirugarren postua izango da jokoan.

## ESKUBALOIA Azken aurrekoa aurkari



Arrasate Eskubaloia taldeak azken aurrekoa izango du aurrez aurre larunbatean, Pasaian.

Arrasatearrek dagoeneko ez dute zer egirik bigarren mailan. Hori dela eta, jokatzeko bitartean, gutxienez, ondo pasatzen saiatu beharko dute. Pasaitarra taldearen kontrako partida hori lortzeko ona izan daiteke.

## IGERIKETA Emitza bikainak

Herriko igerilariak ondo ibili ziren Arrasaten jokatuak Taldeen Arteko Monoaleta erako txapelketan. Jone Etxebarriak 200 metrotan hartu zuen parte eta kontuan izanda lehen aldia zuela, maila eman zuen. Iban Sanchezek bere denborarik onena jeitsi ahal izan zuen 200 metrotan. Ane Lopez de Bergarak, berriz, lehena izan zen 1.500 eta 200 metroetan. Anek eskuartean du Espainiako txapelketara joateko txartela, eta Europakora joateko aukera handiak. Hurrengo txapelketa Tolosan izango dute, apirillean. Bestalde, Euskadiko Igeriketa txapelketa Arrasaten jokatu da, ekainaren 20an.



Arrasatek hiru ordezkari izango ditu

# Udalako Trialsin txapelketak igandean

Gipuzkoako Trialsin Txapelketarako baliozkoak den proba jokatu da Udalan igandean. Goizeko 10:30etatik aurrera, zortzi urtetik hemeretzi urtera arteko trialsin zaleak izango dira nagusi. Arrasatek hiru ordezkari izango ditu: Xabi eta Nestor Kortabarria eta Xabi Abasolo. Eskoriatzatik Arkaitz Urrezolak hartuko du parte eta Elgetatik Eneko Garatek. Hauek, jakina, ingurukoak baino ez dira. Izan ere, txapelketan 45 lagunetik gora elkartuko dira.

Sailkapen nagusian Nestor Kortabarria bigarren postuan dago bere mailan eta Xabi Abasolo hirugarrenen. Bi hauek igandeko lehian ere maila polita erakuts dezakete. Dena dela, lehen postua eskuratzea ez dute samur izango. Liderra Asier Izuzkiza da eta mutil honek bizikleta gainean duen tre-



Eguraldiak laguntzen badu, ikuskizuna izango da nagusi Udalan.

bezia ez da nolana hikoia. Ibilbidean bost eremu daude eta partehartzaile bakoitzak hiru bider zeharkatu beharko ditu. Eremuak oztupoz beteta daudenez, zaila izaten da akats barik bukatzea. Hala ere, zigor puntu gutxien jasotzen duen trialsin zaleak jasoko du saria. Bestalde, partehartzaileek derrigorrez eraman

beharko dute buru babeslea.

Udalako Trialsin txapelketa Arrasate Motorzale elkarteak antolatuko du. Elkarrekin hainbat ekitaldi antolatzen ditu urtean zehar. Era berean, berriro gogoratuko dugu Arrasate Motorzale elkarteak kide izan nahi duenak zabalik duela izena emateko epea. Prezioa, 3.000 pezeta.

## Euskadiko Karate Txapelketa Donostian

Saioa karate eskolako karateka gazteek Gipuzkoako txapelketan hartu zuten parte Donostian. Arrasatek hiru karateka joan ziren. Laida Ramosek laugarren postua eskuratu zuen haur mailan kata espezialitatean. Iban Galan hirugarrena izan zen. Maikel Talledo bosgarren geratu zen katetan gazte mailan.

Arrasatearrek lortutako emaitzak adierazgarriak dira eta pentsa daiteke karatearen harrobia bide onetik doala Arrasaten. Iñaki Muñoz entrenatzailea oso pozik dago bere eskutan dituen karatekekin.

Datorren larunbatean Euskadiko Txapelketa jokatu da Donostiako Bidebieta kiroldegian, arratsaldeko 17:00etan. Saioa eskolatik lau ordezkari joango dira. Kata espezializatean Laida Ramosek eta Iban Galanek hartuko dute parte. Kata eta kumitean; Maikel Talledok eta Mikel Zabartek.

**Haurdun bazaude LAURA da zure jantzidenda.**

**Neurria ez da arazoa izango udaberriko moda gaztea jatzeko.**

**Neurri guztiak ditugu, baita zabalenak ere.**

# Laura



**Erdiko Kale, 30 • ARRASATE  
Tel.: 79 05 80**



**KEPA ZELAIA** (US POSTAL TALDEKO SENDAGILEA)

# “Txirrindularien bizimo

**K**epa Zelaia Euskadiko Kutzako sendagilea da orain hamabi urte. Dena dela, Galdakoa jaio, baina Elorrión bizi den sendagile hau kirol medikuntzan dago espezializatuta. Toulousen ikasi zuen. San Frantziskon eta Montrealen, berriz, ikastetak sekundu. Fagor eta Motorola txirrindulari taldeetan aritu ondoren, gaur egun US Postal profesional mailako taldeko kirol sendagilea da.

— **Kirol sendagilea zara eta txirrindulari zalea. Nondik datorkizu zaletasuna?**

— Gaztetan txirrindulari izandakoa naiz. Beraz, aste dut hortik datorkidala zaletasuna. Egia esateko, ez nintzen txirrindulari ona, baina tira!

Espainiako Federazioko sendagilea ere izan naiz hainbat urtetan.

— **Orain US Postal taldean zabilta.**

— Talde honetara heldu arte, beste batzuk pasa ditut. Espainiako Federazioan sendagile lana bete nuenean, Espainiako itzulian ibiltzen nintzen. Fagor taldean azken bost urteak igaro nituen. Beranduago Motorola taldean ibili nintzen eta iaiztik US Postalen nabil.

— **Gogorra da talde bateko kirol sendagilea izatea?**

— Gogorra baino, nekeza da. Estres eta nerbio asko pasatzen dira. Goizetik arratsaldera arte, hortxe ibili behar duzu, duzun guztia ematen. Ardura asko dira. Gainera taldean txirrin-

dulari on bat izanez gero, estresa areagotu egiten da.


— **Zure taldeko txirrindulariez gain, beste batzuen zainketaz arduratzen zara?**

— Bai, beste bi txirrindulariren zainketaz arduratzen naiz. Izenak ez ditut emango, baina munduko txapeldunak izandakoak dira. Atletak eta pilotariak ere badituzte. Bestalde, kirolari batzuekin harreman oso ona daukat eta lagunak direlako dabilta nirekin. Horrelakoetan diruak ez du axolarik

— **Itzuli edo lasterketa guztiak segitzen dituzu?**

— Itzuli guztietan ibiltzen naiz. Astea Euskadiko Ku-

**“Txirrindularien dietak aldatu egiten dira beharren eta txirrindulariaren gustuen arabera. Normalean ez dira gogorrak izaten. Ohikeria egiten da astuna”**





# “Lana benetan da gogorra”

txan igarotzen dut eta asteburuetan itzulietara joaten naiz. Txirrindulariei errekupeazio programak egiten dizkiet eta eurekin egoten naizenean, nola doazen ikusteko aukera izaten dut. Frantziako Tourrean, berriz, txirrindulariekin batera ibiltzen naiz.

## — Ezagutu duzun itzulirik bereziena?

— Ez dut zalantzarik: Frantziako Tourra. Esparru guztietan da berezia. Txirrindulariak oso ondo prestatuta joaten dira, duten onena eman nahi dute eta horrek presio handia dakar. Italiako Giroak eta Espainiko Vueltak ere, lasterketa garrantzitsuak izan arren, ez dute Tourraren berezitasuna eta xarma.

## — Eliteko kirolari baten zat beharrezkoa da sendagilearen lana?

— Gaur egun, bai. Kirolariak kontrolatu egin behar dira fisikoki eta baita psikikoki ere. Burua eta gorputza orekatuta izateko laguntza behar dute, eta lan hori sendagileak betetzen du. Beharbada gora igoteko sendagilearen lana ez da hain beharrezkoa, baina goiko mailari eusteko bai.

## — Sendagilearen lagun-

## tzarekin eta kirolariaren gogorekin lor daiteke Indurain bat?

— Sendagileak lagun dezaake, baina Indurain bat lortzeko berezko ezaugarriak behar dira. Pertsona horiek psikikoki eta fisikoki gogorrak dira. Horrelakoak historian zehar

nahi fisikoki lur jota dagoenik. Adibide batzuk emateko. Poulidorrek 39 urterekin irabazi zuen Paris-Niza. Zoetemelk-ek, berriz, 41 urterekin korritu zuen Tourra. Dena dela, horrelakoak kasu bereziak dira. Bestalde, txirrindularitzan zein den adin onena ere ez dago esate-

— Ondo prestatuz. Txirrindularitza baino gogorragoa da eramaten duten bizimodua. Etxetik kanpo horrenbeste denbora ibili beharra. Iji-toak dirudite.

## — Txirrindularitza inguruko medikuak futbol taldeetan ikustea arrunta bihurtu da. Zergatik?

— Futbol jokalaria fisikoki hobeto prestatu nahi dituztelako. Orain arte lesioetan espezialistak zeuzkaten: traumatologoak eta abar. Fisiologia duten sendagileek, aldiz, kirolari bakoitzaren errendimendua hobe dadin egiten dute lan.

## — Zure eskuetan ibili den zein txirrindulari aipatuko zenuke?

— Armstrong. Minbizia izan du eta berriro hasi da txirrindularitzan. Inork ez daki nola erantzungo duen, baina bere borondatea izugarria da. 26 urte ditu eta berriro hortxe ibil daitekeela erakutsi nahi du.

## — Astean zehar enpresa sendagilea eta asteburuetan kirolekua. Aldaketa, ezta?

— Aldaketa handia da, baina ona. Medikuntzako bi alor desberdin ezagutzen dituzu. Ni pozik nabil bietan. ■

**“Kirol medikuntza orohar asko aldatu da. Lehen taldeek ez zuten sendagilerik, nahiz eta profesionalak izan. Gaur egun ere batzuek ez dute. Medikuntza, materiala..., dena hobetu da. Aurrerapauso handiak eman dira”**

gutxi ezagutu ditugu: Hinault, Merckx, Anquetil, Indurain... Hauek historia egin dute.

## — Zenbat denbora ibil daiteke kirolari bat elitean?

— Ez dago hori esaterik. Adina, pisua, dituen ardurak eta inguruak dute eragina. Askotan, nahiz eta txirrindularitza utzi, horrek ez du esan

rik. Fisikoki eta psikikoki sendotasuna hartzen denean, baina hori asko aldatzen da. Romingerrek 31 urterekin Espainiako Vuelta irabazi zuen. Marino Lejarretaren urterik onenak 30 urtetik aurrerakoak izan ziren.

## — Txirrindulari baten gorputzak nola aguantatzen du?

## Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta Serrano Doktorea

HAURDUNALDIA  
AMNIOZENTESIA  
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA  
BASEKTOMIA  
BULAR PATOLOGIA

### SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramón M. Lili, 2 • BERGARA • Tel. 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72

# GAMMA

- ELEKTROLOGIA ZENTRUA
- BEHIN BETIKO DEPILAZIOA

Aurpegi eta gorputzerako tratamendua • Doaneko kontsulta

Maalako Errabala, 17, 1.A • ARRASATE • Tel: 79 51 25



## ■ Ana Martiarena Arregi

INSTITUTUKO ADMINISTRATIBOA



**A**ramaiotik Arrasatera etortzen da egunero lanera. Institutuko ikasleek ongi ezagutzen dute Ana. Lehiatilaren beste aldean paper artean aritzen da ikasleen eta irakasleen gorabeherak konpontzen. Urte dexente daramatza Institutuan administrazio lanetan, gustura gainera. Anak 38 urte ditu eta bi seme-alabaren ama da.

**1.- Zein da zure horoskopoa?**

Aries.

**2.- Sinestunazara? Zertan?**

**3.- Animalia bihurtzekotan? Hegazia.**

**4.- Zure akats bat/gauza on bat? Akats asko, baina gauza on gehiago.**

**5.- Zerk lotsarazten zaitu? Ezerk ez bereziki.**

**6.- Amets bat? Lora-  
tegia duen etxe bat.**

**7.- Zer kenduko zenuke mundutik? Bide-  
gabekeria.**

**8.- Gertakizun his-  
toriko bat? Esklabutza-  
ren deuseztapena.**

ren deuseztapena.

**9.- Nor miresten duzu? Pertsona asko.**

**10.- Zeri diozu beldurra? Gaixota-  
sunei.**

**11.- Zeozer garbatzen zaizu? Ikas-  
ten jarraitu ez izana.**

**12.- Negar egin duzun azken aldia? Oso negartia naiz.**

**13.- Zer falta zaio Arrasateri? Uda-  
ran beste pizina pare bat.**

**14.- Eta zuri? Denbora libre gehia-  
go.**

**15.- Lanbidez aldatzekotan? Gustu-  
ra nabil institutuan.**

**16.- Arrasateko gustuko toki bat?**

Zaldibar.

**17.- Zein da esan bai, baina azke-  
nean egin ez duzun gauza hori? Pintura  
ikastaro batera apuntatzea.**

**18.- Zein egunkari irakurtzen duzu?**

*El Mundo/Egin.*

**19.- Gustuko janari bat? Paella.**

**20.- Liburu on bat? Obabakoak.**

**21.- Filmik onena/txarrena? Full  
Monty/Hércules.**

**22.- Musika talderik onena/txa-  
rrena? Musika guztiak gustatzen zaiz-  
kit.**

**23.- Telebistako programarik one-  
na/txarrena? Dokumentalak eta filmak/  
lehiaketak.**

**24.- Egin dizuten oparirik politena? Denak.**

**25.- Denbora libre zertan pasatzen duzu? Umeekin.**

**26.- Oporretarako toki bat? Hondartza duen toki lasairen bat.**

**27.- Etxeko lanik gorrotagarriena? Sukaldea jasotzea.**

**28.- Gomendio bat? Ondo pasau,  
gutxi gastau eta aintzat hartu dauka-  
zuna.**

**29.- Zeren alde emango zenuke bizia? Ez dakit.**

**30.- 200 milioi irabaziz gero? Lora-  
tegia duen etxea erosiko nuke.**



## PARDO estetika zentrua

### ■ Solarium-a dutxarekin

10 saio + 1 doan = 8.000 pta.!!!

### ■ Gorputzerako tratamenduak (Ostar)

Erreafirmatu, moldeatu eta bolumena gutxitu.

Saio bakoitza: 2.700 pta.!!!

- Depilazio progresiboa
- Depilazio elektrikoa
- Zelutiti murriztailea
- Drainaketa linfatikoa
- Erreafirmatzailea
- Mantenimendua

Eskaintza hereziak!



Iparragirre enparantza, 4 Behea. Grupo San Juan ☎: 79 52 17 ARRASATE



# Saia

**H**emen dugu gure artean dagoen hegaztirik handiena. Sai-arreak hego punta batetik bestera 2,36 metrotik 2,80 metrora inoko luzera izan dezake. Horregatik, oso erraz ezagutzen da.

Mendi gailurretako haitzak dira bere etxea. Ingurune basati eta gogor honetan bizi da, mundutik aparte bezala, behean dauden inurriei begira. Goizalde ia pasata, eguzkiaren izpiek giroa pisika bat berotu bezain laster, amildegian behera abiatzen da, hegoak zabal-zabal, urrutira joateko prest, egunero ko janariaren bila. Urrutiko gailur batetik besterako joanetorrian, Sugaar dirudi, Anbotoko Mariren laguna eta maitea. Halaxe ibiltzen baitzen antzinako euskaldunek gurtzen zuten jainko hau, gailur batetik bestera, Mari-ri bisita egiteko, suzko bola baten itxura hartuz. Iritzi batzuen arabera, izate berekoak dira Sugaar eta Arrasateko dragoia, nahiz eta zentzu oso ezberdineko kondairetan agertu.

Baina saiak nahiko luke jainkoa izan. Izaki bizidun guztiok bezala, jana behar du irauteko, eta kasu honetan Heriok han-hemenka uzten dion sarraskien menpe bizi da. Zentzu honetan, izugarri kaltegarria zaio Udalatx inguruetan aspaldidanik gertatzen ari den artzantzaren gain-behera; edo artzain batzuek ardi eta behi hilak zulo izkurtuetan sartzeko duten ohitura, saien begibistatik urrun. Horregatik, desagertzeko zorian dago saia.

Iskanbila ederra sortu da,



Udalatx inguruetatik ez oso urruti, Nafarroan zehazki, saiak animalia biziak ehizatzen hasi direlako. Esames honi sinesgarritasunik kendu gabe, aipatu behar da saiak baldintza jakin batzuetan bere betiko ohiturak apur ditzakeela, baina hau oso gutxitan gertatzen dela. Ez dago ehizarako egina, jai dauka ofizioz aldatu nahi badu. Eta ez da bidezkoa kasu jakin batzuk direla eta, orokortasun xeble baten izenean pentsatzea saiak bat batean aldatu egin direla eta orain gehienetan horrela jokatzen dutela.

Edonola ere, saia beti gaizto. Txikitatik sartu digute, kondaira eta irudi beldurgarrien bitartez, saia, hontza, sugea eta belea oso izaki gaiztoak direla. Hori bai, funtsezko arrazoirik eman gabe. Agian horregatik hil zuten sai bat duela gutxi Aloiñan. Zein izan zen haren bekatua? Horixe ba, saia izatea.

Esan gabe doa, saia legeak babesturiko hegaztia dela.

Baita ere, esan behar da egun hauek oso bereziak direla harentzat. Neguan jarritako arrautza bakarretik ateratako sai-txitak koskortzen ari dira haitzetako zulguneetako habitetan, gurasoen maitasunak babestuta. Momentu honetan eta uztaile arte, biziki ahulak dira, txitoez ez dakite hegan egiten eta nahikoa da habian ikutu bat, hauek amildegira botatzeko. Horregatik, eskaera berezi bat egin behar zaie eskalataleiei: Udalatx inguruetan aurkitzen badute saien habiaren bat, ingurutik ez pasatzeko.

Azkenik, ez al du saiak Udalatx ingurunea biziki alaitzen? Oraindik gogoratzen dut urte asko ez dela oraindik, saia Udalatxetik desagertua zenean. Badirudi Mugarra mendiko koloniar esker itzuli dela. Eta ez beldurtu haren tamaina handiarekin. Saia handia da, baina baita mantsoa ere, behia bezalakoxea.

Urtzi Mendizabal

## Euskerien txokoa

### Euskal Herriko herrialdeen izenak

**G**aur Euskal Herriko herrialde, herritar eta euskalkien izenak ekarri ditugu gure txokora, aurrerantzean inork zalantzarik izan ez dagien.

Herrialdeak: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa (Garaia), Nafarroa Beherea, eta Zuberoa.

Herritarrak: arabarra, bizkaitarra, gipuzkoarra (giputza), lapurtarra, (Hegoaldeko) nafarra edo Nafarroa Garaikoa, (Iparraldeko) nafarra edo Nafarroa Beherekoa, edo baxenafartarra eta zuberotarra.

Euskalkien izenak: Arabako euskara, bizkaiera, gipuzkera, lapurtera, (goi) nafarrera, behe nafarrera eta zuberera

Honeik izenok Euskaltzaindiak onartu ditu eta idatziz eta euskara batuan erabiliko ditugu. Kontuz herrialdeen izenekin: a-z amaitzen denean a hori berezkoa dute, Bizkaiak eta Nafarroa Behereak izan ezik. Hau da: *Gipuzkoako, Nafarroako, Zuberoako* esango ditugu, eta *Bizkaiko* eta *Nafarroa Behereko*.

Karmelo Urbarren



# Igandera arte hamalau arrasatearren lanak ikusgai Harresi aretoan

Gazteei maiz geldotasuna aurpegiatzen zaie. Arrasateko gazte taldeek topiko hau hautsi nahi izan dute, eta lehenengo Gazte Astea antolatuta dute, "Gazteok batuz, elkar-lana bultzatu" leloarekin. Hainbat taldek bat egin dute helburu jakin batekin: gazteen inguruko gaiak kaleratzea. Joera ezberdinetako taldeek bat egin dute gazteriaren arazoak agerian jartzeko, denon partehartzea goraiatzeko asmoz. Parte hartu duten taldeen artean: AED Gazteak, Talde Antimilitarista, Jarrai, Gazte Abertzaleak, Txixilipurdi, Orkatz, Txalaparta Taldea...

Aste osoan zehar gazteen inguruko gaiak jorratu dituzte, hainbat ekitalditan. Aukera anitz gazteen kezka eta ametsei erantzuteko.

Gazte Asteari astelehenean eman zitzaion hasiera kalejirarekin. Ekitaldiek igandera arte jarraituko dute.

Mahai inguruetan eta hitzaldietan aztertu dituzten



Neska gutxik esku hartu dute aste honetako erakusketan.

gaiak zabalak izan dira: euskal presoak eta gazteen erantzuna, gazteak eta euskera, drogak, Internet, antimilitarismoa... Dudarik gabe, gauza interesgarriak izan dira mintzagai. Mahai inguruetan gaz-

teen egunerokotasunean pillean dabilzan gaiak jorratu nahi izan dira.

Musikarentzat ere izan da tarterik, eta film laburrek ere izan dute beren txokoa.

Gazteak izan dira, beraz,

aste honetako protagonista.

Harresi aretoan herriko artistek erakusketa prestatu dute. Beren artelanak etxetik atera eta herritarren aurrean jarri dituzte.

Sari pentsatzen dugu artistak etxetik kanpo daudela, margolan onak ikusteko hemendik irten behar dugula, baina Harresi aretoko hurbilduz gero, konturatuko zarete herrian bertan benetako artistak daudela.

Hainbat estilo eta joeratako lanak biltzen dira erakusketan. Guztiek gauza bat dute batera: herriko gazteenak dira, eta gazteriaren grinaz daude eginak. Hortik aurrera, bakoitzak bere bidea jorratzen du: margoak, eskultura, fotomontajeak...

Gauza kuriosoa: lan gehienak mutilenak dira; neska gutxik parte hartu dute erakusketan.

Gure proposamena Harresi aretoko hurbil zaitezte da. Igandera arte zain dituzue gure herritarren artelanak.



## Parques y Jardines

**Parke eta lorategien sorkuntza.**

**Lorazaintzako mantenimendua orohar.**

**Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



JOSE INAZIO ANSORENA, "MIRRI"

# Txirri, Mirri ta Txiribiton Urruñako ikastolaren alde

Bata azkarra da, errespetatua, zintzoa: *Txirri*. Bestea arroskoa, bekaiztia, tranpa zalea, beti irabazteko prest. Bera da saltsa guztien perrexila: *Mirri*. Hirugarrena ogi pusketa hutsa da, maitagarria eta beti maitale: *Txiribiton*. Hirurak elkarren beharrean daude, bata bestea gabe ez dira inor, baina elkarrekin Txirri, Mirri eta Txiribiton.

25 urte beteko dituzte aurten beren arteko estiluek eta liskarrek.

Igandean Arrasatera datoz Urruñako Ikastolaren aldeko ekitaldian parte hartzera.

**— Zer dela eta Urruñako Ikastolarentzat dirua lortzeko proiektu honetan?**

—Iparraldeko ikastolen egoera oso latza da. Gauzak ez daude bat ere ondo. Guri hango egoera kontatu zigutenean, pentsatu genuen merezi zuela konpromezua hartzea euskararen eta proiektu honen alde. Horrela ba, erabaki genuen ekitaldiak ematea miloi bat pezeta lortu arte. Hasierako urteetara bueltatuz prestatu dugu saioa, lehenengo urteetan egiten genuena da. Oso saio bizia, esketxetan eta pailazoan irudian oinarritzen den zerbait.

**— Zorionak, aurten zuen zilarrezko ezteiak dira eta. Nola ospatuko duzue?**

—Gauza berriak egin nahi ditugu, kalitatezkoak baina berriak. Marrazki bizidun film laburrak argitaratuko ditugu, baita komiki bilduma bat ere. CD-rom bat ateratzeko proiektua ere badugu.

**— Haurrak aldatu dira 25 urteren buruan?**



—Ez, haurrak berdinak dira, gauza berdinekin segitzen dute emozionatzen, aldatu dena haurtzarora da. Lehen denbora luzeagoz izaten ziren haur, orain azkarrago heltzen dira. Aldatu dutenak gurasoak dira. Garai bateko gurasoek eredu jakin bat zuten, baina azken urteotako gurasoek ez dakigu ondo zein den gure egitekoa seme-alabekin. Ez dakigu haurren lagun izan behar garen, edo zer. Hori haurren heziketan asko nabaritzen da. Gure seme-alaben heziketa eskuetatik joan zaigu.

**— Pailazoak helduentzat ere badira?**

—Noski. Pailazoak ez dira soilik umeentzat, helduentzat ere badira. Batzuetan, haurrentzako ikuskizun bat prestatzen duzunean ematen du zerbait inozoa dela eta ez du zertan inozoa izan behar. Pailazo onak izanez gero, gazteentzat eta helduentzat ere badira. Guztiek goza dezakete pailazoekin.

**“Azken urte hauetan haurrak baino gehiago gurasoak aldatu dira”**

## aste gazte

### ■ EUSKAL UDALEKUAK

• Izena emateko fitxak jaso ditugu Gazte bulegoan. Elkarte honekin Abaigar, Ber-nedo, Goñi edo Urdirutzera joan nahi izanez gero, martxoaren 31 baino lehen eman behar da izena.

### BEKAK

• Deba Garaiko Euskara eta Kirol Zerbitzuek kirol materialak euskaraz sortzeko bekak atera dituzte. Epea: Apirilak 20.

• Film laburrak produzitzeko laguntzak, ICCA antolatuta. Epea: ekainak 23

### LANA

• Nafarroako enpresa eta turismo ekintzerako teknikaria behar da. Epea: martxoak 18.

• Osakidetzak haginlariak eta biologoak behar ditu. Epea: martxoak 20

• Administrazio laguntzaile bat Altsasuko Udalerako. Epea: martxoak 25

• Berako Musika Eskolak, saxofoi, klarinete eta txistu irakasleak behar ditu. Epea: martxoak 29.

### LEHIAKETAK

• Durangoko Barbaro elkarteak, ipuin labur, bertso paper eta komiki lehiaketa antolatu du. Epea: martxoak 20.

• Zumarraga eta Urretxuko udalek urtero antolaturiko lehiaketa sorta irekita dago jadanik.

• Narratiba eta Poesia Iparragirre saria, X. Komiki Lehiaketa eta XIV Bertso paper lehiaketarako lanak aurkezteko epea: ekainak 19.

Berri gehiagorako:  
GAZTE ZERBITZUA  
☎ 77 00 65



## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

- Uribe auzoan etxebizitza salgai. Sukaldea, lau logela, egongela, bi bainugela eta trastelekua. Tel.: 79 27 45.

- Astigarragan etxebizitza berritua salgai. Tel.: 33 12 20. Gema.

### 2. Erosi

- Konpontzeko dagoen etxebizitza erosiko nuke 60 m<sup>2</sup> ingurukoa. Tel.: 77 10 44 eta 908 77 33 27.

- Arrasateko erdialdean igogailua duen etxebizitza erosiko nuke. Tel.: 77 02 79.

### 3. Errentan emateko

- Aramaion plaza ondoan dagoen etxebizitza alokatzen da. Tel.: 79 60 88.

- Torrevejan lau lagunentzako apartamendua alokatzen da Aste Santuan. 35.000 pta. Erdigunean eta eguzkitua. Tel.: 79 53 18.

- Ikasleentzako 110m<sup>2</sup>ko etxebizitza alokagai Eskola Politeknikotik gertu. Tel.: 79 52 17 gaueko 20:00ora arte eta 21:00etik aurrera 79 07 33.

### 4. Errentan hartzeko

- Etxebizitza txikia, atiko edo teilatutua alokatuko genuke, merke. Tel.: 70 09 52. Gaeuz.

- Hiru lagunentzako etxebizitza behar da Arrasaten. Tel.: 77 12 00. Xabier Sagartzazu.

### 5. Etxe konpartituak

- Lagun bat behar da Eskola ondoan etxebizitza osatzeko. Tel.: 77 08 44.

## GARAJEAK

### 7. Saldu

- Etxebizitza batean logela bat alokatuko nuke. Tel.: 948 25 47 16. Deitu gaueko 22:30ak baino lehen.

- Erguinen bi solairuko garajea salgai. Tel.: 79 48 91 eta 79 96 39.

- Kontzeziñon lehenengo solairuan garajea salgai. Tel.: 79 18 76.

- Bañez Doktorea kalean garajea salgai. Prezio ona. Tel.: 79 93 91. Jose Mari.

## ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

## GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

## LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

## LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

## IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

## MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

## DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

## HARREMANAK

34. Agurrak
35. Harremanak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



# 77 05 65

Arrasate Press • Otorala Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)  
E-mail: arrasatepress@readysoft.es

**Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.**

### 9. Errentan emateko

- Erguin auzoan garajea alokagai. Tel.: 79 13 97. Gaeuz.

- Uribe auzoan garajea salgai. Tel.: 79 27 45.

- Roneoko etxeetan garaje itxia alokatzen da. Tel.: 79 19 64.

### 10. Errentan hartzeko

- Garajea alokatuko genuke. Lur azpikoa ez balitz hobe. Tel.: 79 54 23. Jaione.

## LOKALAK

### 12. Saldu

- Kalealdean baina Zarugaldetik gertu 100 m<sup>2</sup>ko bi solairuko lokala salgai. Tel.: 79 07 24.

### 14. Errentan emateko

- San Andresen frutadenda eskualdatzen da. Tel.: 79 72 91. Gaueko 21:30etatik aurrera. Matilde.

- Bergarako Bolu kalean lau gelako bulegoa alokagai (Osorik edo gelaka). Tel.: 76 58 91.

- Izarra dorrean 110 m<sup>2</sup>ko tokia alokagai. Tel.: 79 25 26.

- San Joan hotel berritutik gertu eta leku onean 62 m<sup>2</sup>ko tokia alokagai. Edozein kontsultarako aproposa. Tel.: 79 18 95. M<sup>a</sup> Pilar.

### 15. Errentan hartzeko

- Gazte batzuk toki baten bila dabilta. Tel.: 79 56 14. Igor.

- Gazte talde batek toki bat errentan hartuko luke. Tel.: 79 53 18. Asier.

## LANA

### 17. Eskaintzak

- Esperientziadun klinika laguntzailea pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tel.: 79 34 09.

- Asteburuetan edozein lan egiteko emakumea gertu. Tel.: 79 62 69. 21:00etatik aurrera.

- Esperientziadun saltzailea lan egiteko gertu. Tel.: 79 31 58. Asun.

- Pertsona nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Orduka ere bai. Tel.: 79 51 29.

- Asteburuetan eta jai egunetan emakume euskalduna pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tel.: 76 37 80. Egurdietan.

- Neska gertu umeak zaindu edo kama-rero lanak egiteko. Tel.: 79 57 64.

- Neska arduratsua gertu dago orduka garbiketarako egiteko eta umeak zaintzeko. Tel.: 71 53 74. Deitu goizez edo 20:00etatik aurrera.

- Emakume euskalduna gertu etxeko lanak egin eta umeak odo pertsona nagusiak zaintzeko. Tel.: 79 07 73.

- Esperientziadun neska euskalduna denda batean lan egiteko gertu. Tel.: 79 81 16. Estibaliz.

### 18. Eskaerak

- Zerbitzari euskaldunak behar dira. Tel.: 78 35 26.

- Adineko senar-emazteak zaintzeko 35 urtetik gorako emakumea behar da. Euskalduna bada, hobe. Tel.: 76 51 67. Arratsaldeko 20:00etatik 22:00era arte.

- Zerbitzari gaztea behar da. Tel.: 79 67 12. Goizez.

- Garraiolaria laguntzaile lanetarako mutil arrasatearra behar da. Tel.: 907 70 20 46.

- Zerbitzari euskalduna eta esperientziaduna behar da. Tel.: 79 24 58.

- Asteburuetarako zerbitzaria behar da jangelan zerbitzeko. Tel.: 79 68 57.

- Emakumea behar da taberna bateko sukaldean lan egiteko. Tel.: 79 00 34.

- *Esuskaldunon Egunakaria* Arrasaten banatzeko pertsona bat behar da. Euskaraz jakitea eta autoa izatea beharrezkoa da. Tel.: 79 75 58. Juli. Arratsaldez.

- Zarugalde 50ean 20-45 urte arteko emakumea behar da dendan lan egiteko. Interesatuek iluntzeko 19:00etatik 20:00etara pasa bertatik.

### 19. Denetarik

- Lanak ordenadorez pasatzen dira. Tel.: 79 79 84.

- Suitzara *au pair* bezala joateko nes-



ka bat behar da. Frantsez apur bat jakitea beharrezkoa da. Tel.: 79 40 91.

• Eskuak jarrita osatzeko modu naturala (Reiki). Tel.: 79 45 74.

## IRAKASKUNTZA

### 20. Eskaintzak

• OHO, LH, DBH eta latin eta ingeles eskola partikularrak emango nituzke. Esperientziaduna eta merkea. Tel.: 79 47 35.

• Psikologoa, lehen hezkuntzako era guztietako laguntza eskola emateko gertu. Tel.: 77 17 02.

### 21. Eskaerak

• Ingeniaritza Teknikoa ikasten ari naiz eta kimika orokorreko eskolak hartuko nituzke. Tel.: 79 21 51.

• Frantses eskolak hartuko nituzke. Tel.: 78 08 24. Deitu 20:00etatik aurrera. Maite.

• 2. LOGSEko ikasle bati matematika eskolak emateko irakaslea behar dugu. Tel.: 79 44 11. Anastosio edo Pura.

## MOTORRA

### 23. Saldu

• Opel Corsa 1.200, SS-AC salgai. 250.000 pta. Tel.: 77 02 18.

• Derby markako motorra salgai. 49 cc. Tel.: 79 73 42.

• Super 5 Turbo salgai. Egoera ona. Tel.: 76 56 55 edo 79 75 11. Juan Luis.

• Renault 21 GTS autoa salgai. Egoera ona, lau urte t'erdia. 68.000 km. Tel.: 76 30 12.

• Golf autoa salgai. Lehen modeloa ITV otsailean pasa zuen. Motorra rektifikatua. Prezioa: 175.000 pta. Tel.: 79 27 24.

• Seat Ibiza autoa salgai prezio interesgarrian. Tel.: 79 59 62.

## DENETARIK

### 26. Saldu

• Ordenagailua salgai. Tel.: 970 41 74 08. Jose.

• Kenwood 758 R autorako irrati eta CDa salgai. Bi subwoofer JBL 400 w ditu. Prezio interesgarria. Tel.: 79 26 16 edo 79 27 70. Urtzi.

• Mastin arrazako bi txakurkume salgai. Tel.: 33 05 95.

• Fagor markako 10 litroko ur berogailua salgai. Tximinia du eta ia berria dago. Merkea. Tel.: 79 65 31. Tere.

• Game Boy-a salgai. 2 joko. Tel.: 79 12 95. Miren.

• Bigarren eskuko Mercury markako parapentea salgai. Tel.: 79 48 09. Itziar.

• Bulegoko lau aulki salgai. Egoera ona. Egongela baterako ere aproposak izan daitezke. Tel.: 79 79 46.

• Xake ordenagailua salgai, erdi prezioan. Berria da. Tel.: 79 57 64.

• Trial-eko bizikleta salgai. Berri-berria. 40.000 pta. Tel.: 79 93 03. Iban.

• 10 x 3,5 Movil home-a salgai. 3 gela, bainugela, sukaldea eta jangela. Oso egoera onean. Tel.: 79 89 86. Gaez.

• Trial Sin-erako bizikleta gorria salgai. Egoera onean eta merkea. Tel.: 79 96 31.

### 29. Eman

• Bost hileko txakur mestizoa oparituriko nuke, ondo zaintzekotan. Tel.: 79 90 46.

### 31. Galdu

• Joan den larunbatean Casio markako erlojua galdu nuen San Viator Txikin futbol entrenamenduan. Tel.: 79 17 32.

• Otsailaren 22an Aretxabaletako Ezkutu tabernan giltzak eta kartera galdu nituen. Tel.: 79 51 21.


• Eratzun bat galdu dut Zarugalde kalean. Alboetan bi harribitxi dauzka eta erdian bat. Tel.: 907 89 84 03.

### 32. Aurkitu

• Opari bat aurkitu nuen otsailaren 19an Garibai etorbideko telefono kabinan. Tel.: 77 11 68. Jon.

### 35. Harremanak

• Arrasateko punky estiloko musika egiten duen talde batek baxujolea behar du. Tel.: 79 66 70.



**WERU®**  
**Ate + leihoak**



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2  
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia  
Tel.: 79 24 12 eta 79 97 95  
ARRASATE



*Salterain*

PVC-zko ate eta  
leihoez gain:  
moksetak,  
zoru arinak,  
kortxoak,  
Louverdrape  
kortinak,  
Kortinoba, testila...



■ **Horoskopoa**

- **Aries** Eguneroko ohiturak aspergarriak irudituko zaizkizu.
- **Taurus** Miauka ibiliko da gau osoan zure katua.
- **Gemini** Igandea egun ahaztezina izango da zuretzat.
- **Cancer** Erretratu zaharrek gaztaroko oroitzapenak ekarriko dizkizute.
- **Leo** Ilaunezko hartzatxo bat irabaziko duzu tonbolan.
- **Virgo** Begiratu zerura: lainoek zure aurpegiaren antza dute.
- **Libra** Laster birkiak izango dituzu, beraz, hasi aurrezten.
- **Scorpio** Atso zahar batek madarika-zio bat botako dizu.
- **Sagittarius** Traste zahar bat baino gutxiago balio du zure autoak.
- **Capricorn** Zure psikiatrak bere buruaz beste egingo du.
- **Aquarius** Telefonoaren txirrinak zortu egingo zaitu ondorengo egunotan.
- **Piscis** Odola baino adrenalina gehiago izango duzu zainetan.

■ **Hitz gurutzatuak**

1	2	3	4	5	6	7
8						
9			10			11
12		13			14	
15				16		
17			18			19
20						21

JUAN BAUTISTA AGORRIA

**Horizontalak** 1. Itxaropen. 8. Bere anaia Remorekin batera Erroma hiria sortu zuen. 9. Zilarra. 10. Kaiku, inozo. 12. Zerbaiteko interes handia erakusten duen pertsona. 14. Fleming, James Bond pertsonaia sortu zuenaren izena. 15. Opari egin. 17. Albaniako txanpon nagusia. 18. Bi hormak elkartzean eratzen duten angeluaren barrualdeko espazioa. 20. Anfibioren klaseko zenbati animaliaz esaten da. 21. Kasik.

**Bertikalak** 1. Juan Luis, taxista eta pelotariaren abizena. 2. Gogoeta. 3. (Ald.) Abel gorrien hotsa, idiarena bereziki. 4. Ordorika, oñatiar abeslariaren izena. 5. Bilo. 6. Era gustagarri. 7. Gas nobleen taldeko elementu kimikoa, kaleko iragarkietako argiak egiteko erabiltzen da. 11. Lau alde dituen poligono. 13. Lurrez inguraturiko ur-masa handia. 16. Bel-dur, ikara. 19. Joan aditzaren erroa.


**Horizontalak:** 1. Iztuzka, 2. Gogapen, 3. (Ald.) Muz, 4. Rupen, 5. Ite, 6. Polito, 7. Neon, 11. Lauki, 13. Zoko, 20. Anuru, 21. Ia  
**Bertikalak:** 1. Irizola, 2. Gogapen, 3. (Ald.) Muz, 4. Rupen, 5. Ite, 6. Polito, 7. Neon, 11. Lauki, 13. Laku, 16. Izu, 19. Oa.

Kafe hauek denak...  
**FREXKOAK**  
**XIGORTU BERRIAK**  
**XUABEAK.....dira**


Egunero herriz-herriz banatzen diren kafeak. Zeuk aukeratu.



DESCAFINADO




CAFFÈ BAQUÉ



CAFFÈ BAQUÉ



Suaves



CAFFÈ BAQUÉ



CAFFÈ BAQUÉ



CAFFÈ BAQUÉ



Aroma Suave


**BAQUE KAFEA**  
 XUABEA



Inazio Olaizola, ATB *Berriak* saioko aurkezle berria

# “Erronka handia izan da niretzat *Berriak* aurkeztea”

Herriko saltsa dexentetan dabil sartua. Komunikabide edo kultura usaina duen guztietan hor dabil: irratan *Zoro-klasikoak* saioa aurkezten du, Goikobalun ere aritzen da, ATBn *Tertulixan* saioa zuzentzen du, ATBk *Berriak* aurkeztea proposatu zionean ezin ezetz esan. Gudu guztietarako gerrilleroa dugu Iñaki Olaizola. San Viator ikastetxean Logseko irakasle da 2. kurtsoan.



Inazio Olaizola.

— Nola ikusten duzu zeu-  
re burua kamara aurrean?

— Serioegi. Hasieran oso urduri nengoen eta oso serio ikusten nuen neure burua, orain poliki-poliki lasaituz noa eta erosoago nabil. Aste bat pasatu ondoren, esan dezaket hobeto ikusten dudala neure burua.

— Non zabilta eroso-

go, irratan ala telebistan?

— Oso ezberdina dira bata eta bestea. Irratian okerrak zuzentzea errazagoa da.

— Pozik zaude eginda-

ko lanarekin?

— Bai, oso pozik. Erronka izan da niretzat *Berriak* aurkeztea, eta asko ikusteko eta ikasteko aukera izan dut. Esperientzia ona izan da.

## Arrasate Irratia 107.7 FM

### LARUNBATA

9:00 **Albistegia**

9:30 **Musika**

10:00-11:00 **Jailarai** haurrentzako programa. Maider Errarte eta Belen Aranbarrerekin.

11:00-12:00 **Zoroklasikoak**. Musika klasikoa, Eugenio Etxebeste, Iñaki Olaizola eta Eusebio Iñarrarekin.

12:00-14:00 **Bi Zoro eta Zu** magazina, Mikel Lizarralderekin.

### ASTELEHENA-OSTIRALA

#### GOIZ-EGUARDIZ

9:00 **Albistegia**

9:30-11:00 **Goizoro**

14:30-16:00 **Bixau** orduan

### GAUEZ

#### Astelehena

21:00-22:00 **Jokoz kanpo**. Kirolak, Gorka Etxabe eta Rafa Mungjarekin.

#### Asteartea

22:00-23:00 **Euskal Festa**. Goizane Arana, Maider Errarte eta Garbiñe Perezekin.

#### Asteazkena

22:00-23:00 **KK2A**. Biteri Ikastetxe Nagusiko ikasleek eginko magazina.

#### Osteguna

22:00-23:00 **Kutrelax**. Belen Carenas eta Kaittin Allenderekkin.

#### Ostirala

22:00-23:00 **Music Box**. Edu Abasolo eta Pedro Costarekin.

23:00-24:00 **Draxtor**. Makina musika, Daisy D. eta Betty Boorekin.

## ■ ATBko programazioa

LARUNBATA, 15	ASTELEHENA, 16	ASTEARTEA, 17	ASTEAZKENA, 18	OSTEGUNA, 19	OSTIRALA, 20
Astean zehar eskainitako saiorik interesgarrien erre-pika.	13:30 <b>Astebete</b> . (Errepika)	13:30 <b>Mondrasport</b> . (Errepika)	13:30 <b>Lotsa Barik</b> . (Errepika)	13:30 <b>Munduari Buel-taka</b> . (Errepika)	13:30 <b>Kukaratxa Motel</b> . (Errepika)
13:30 <b>Kukaratxa Motel</b> . (Errepika)	20:00/20:30/21:00 <b>Berriak</b> .	20:00/20:30/21:00 <b>Berriak</b> .	20:00/20:30/21:00 <b>Berriak</b> .	19:15 <b>Kukaratxa Motel</b> .	20:00/20:30/21:00 <b>Berriak</b> .
14:15 <b>Astebete</b>	21:30 <b>Mondrasport</b> . <i>Itxaro Zubillaga</i> . Asteburuko kirol jardueraren erre-paso zabala, Zal-dibarko futbol txapelketa, gonbidatuak eta Arrasate Kirolak lehiaketa.	21:30 <b>Lotsa Barik</b> . <i>Maier Uranga</i> .	21:30 <b>Munduari Buel-taka</b> . <i>Elene Alberdi</i> . Imanol Exposito arrasaterak Islandiara egindako bidaien kontuak ekarriko dizkigu.	20:00/20:30/21:00 <b>Berriak</b> .	21:30 <b>Astebete</b> . Astean zehar jasotako berrien gainbegiratzeara.
14:45 <b>Kaleidoskopioa</b> . (Errepika)				21:30 <b>Kukaratxa Motel</b> . <i>Betirtze Iñurritegi</i> eta <i>Alazne Ruiz de Munain</i> . Gaztetxoentzako lehiaketa.	





**P**ako Aspiazu Mondrako jokalariai koadrilakoek egindako omenaldia duzue argazkian. 1949a izango zen, Pakok futbola utzi zuenean, lagunek koadrilen arteko

futbol partida antolatu zuten UCEAko (Union Cerrajera Escuela de Aprendices) futbol zelaian. Argazkian, Raimundo Velez de Mendizabalek — Pakoren koadrilakoa— agiri bat ematen dio Mondrako jokalariai,

egunaren oroigarri. Raimundok dioenez, omenaldira jende gutxi joan zen, konturatu barik San Joaantan antolatu zutelako.

Raimundoren aldamean, Paco de la Cruz *Paco Medallas*, Pako Aspiazu eta Jesus Vitoria, Mondra eta

Alaveseko jokalaria azken hau. Handik urte gutxira, Pako Aspiazuk istripua izan zuen Gorbean eta hiru egunera Donostian hil zen.

-----  
*Berriemalea: Raimundo Velez de Mendizabal*  
*Argazkia: Juanjo Herrero*



## BAZTER-ALDE

J A T E T X E A

**Denboraldiko platerak, girorik onenean**

Galartza auzoa • *AREIXABALETA*

Tel.: (943) 79 24 58

**TOLDOS  
LECE** C/B

Kataide Poligonoa, 14  
 Musakola • ARRASATE  
 Tel.: 79 23 83  
 Faxa: 77 04 45

**Eguzkiari  
 aurre egiten  
 diogu inork  
 baino hobeto**



*Kalitateak mugarik ez.*



## ARGI-PLASTIC

Leihoen fabrikazioa, P.V.C, aluminioa eta poliuretanoa  
Zigorrola, 1 8. Pabeiloia  
Tel.: 77 11 30  
ARRASATE



**INSTITUTO  
OPTICO**



## Kalitatea saltzen dugu.

**INSTITUTO OPTICO**  
Erdiko kale, 22  
20500 **ARRASATE**  
79 71 68

**INSTITUTO OPTICO**  
Andra Mari, 8  
48200 **DURANGO**  
94 6202986

**INSTITUTO OPTICO**  
Hiper Eroski  
20500 **ARRASATE**  
79 78 26

**INSTITUTO OPTICO**  
Grupo San Ignacio, 3  
48200 **DURANGO**  
94 6818492

**OPTICA GARAGORRI**  
Iturriotz, 29  
20500 **ARRASATE**  
79 16 98

**INSTITUTO OPTICO**  
Erdiko kale, 21  
20830 **MUTRIKU**  
943 60 31 54

**IKASLEAREN ALDEKO KANPAINA  
BETAURREKOAK 5.990 pta.tan**





# BAKARRIK EUSKAL HERRIAN GOZATU AHAL IZANGO DUZU IZARRA SORTAZ.

Bakarrik hemen aurkitu ahal izango duzu Escort Izarra, auto bat geure errepideetarako bereziki diseinaturia, geure gustukoa. Horregatik ekipametu hau darama:

Lainotako faroak  
Airbag  
Lagundutako direkzioa  
Pintura metalizatua  
Kristal igogailu elektrikoa  
Itxitura zentralizatua  
3000 irratikaseta bozgorailuekin eta karkasa erauzgarriarekin



Escort  


**IZARRA** 1.8 Turbodiesela **1.880.000** pta.

Gainera, Prever egitasmoari esker, 80.000 pta merkeago aterako zaizu.

Hurbil zaitetz zure Ford saltokira eta informa zaitetz Euskadirako bakarrik den serie mugatu honetaz.

Eskura ezazu

*Multi  
Opción* ek

uskal Herriko Ford saltokien sarearen eskaintza. BEZ, garraioa eta matrikulatze zerga barne. Matrikulatze gastuak ez daude sartuta. Promozio beherapenak barne. Eskaintza hau ezin da beste kanpaina batzuekin nahastu.

ARABA, GIPUZKOA ETA  
BIZKAIKO FORD SAREA

**MUGARRI**

Araba etorbidea, z/g • ARRASATE • Tel.: 79 07 44

